

I. KAPITULUA XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Izena eta lege-araubidea

Itsasondo-n, HITZAR, KOOP. S. izena hartuta, kooperatiba mistoa, integrala (kontsumo eta zerbitzu kooperatiba) eta irabazi asmorik gabekoa sortu da, legedi hauei lotuta: gaur egun indarrean dagoen Euskadiko Kooperatiben Legearen xedapenei (Eusko Jaurlaritzak onartua), eta, beste aldetik, estatutu hauei aplikatu beharrekoak diren gainerako lege-aginduei.

2. artikulua. Helburu soziala

Kooperatibaren xede soziala da bere bazkideen, enplegatuen eta komunitatearen bizi kalitatea hobetzea, lekuko behar sozioekonomikoei modu kooperatiboan erantzunez. Kooperatibaren azken helburua ez da irabazi finantzarioak ematea, baizik eta ingurumen-, ekonomia- eta gizarte-onurak ematea bazkideei, kideei eta lan egiten duen tokiari. Horretarako, eremu hauetan jardungo du:

HITZAR, KOOP. S.-REN ESTATUTUAK

- Energia-komunitate baten jarduerak garatu, energia berriztagarrien erabilera sustatzeari buruz Europako zuzentarauek ezarritako printzipioak hartuta. Honakoak izan daitezke:
 - Energia-kontsumoaren murrizketa, energia-eraginkortasuneko neurrien, prestakuntzaren, informazioaren eta aholkularitza-zerbitzuen bidez, baita birgaitze partzial, sakon eta integralaren arloko esku-hartzeak ere;

- Mugikortasunaren arloan energia-mendekotasuna murrizteko beharrezkoak diren jarduerak;
- Energia berriztagarriari buruzko azterketak eta proiektuak sustatzea, komunitatean energia burujabetza lortzeko, gutxienez.
- Energiari lotutako ekipoak eta zerbitzuak modu mankomunatuan erostea, kolektibo osoari baldintza hobek eskaintzeko.
- Ondasunak nahiz zerbitzuak hornitzea, bazkideek eta haiekin bizi direnek erosteko, erabiltzeko edo kontsumitzeko. Ondasun eta zerbitzu horien soberakina bazkide ez diren pertsoneri edo erakundeei hornitu ahal izango zaizkie.
- Talde zaurgarriak eta baztertuak integratzea, beraien bizi-kalitatea hobetzeko jardueren bidez.
- Lekuko beharrei erantzunez, tokiko baliabideak modu kolektiboan, kooperatiboan eta ingurumena zainduz kudeatzeko ekintzak bultzatzea, horretarako behar diren azpiegitura, tresna, baliabide eta zerbitzuak aktibatuta.
- Ekonomia zirkularra bultzatzeko ekimenak egin, lekuko baliabideen eta baliabide naturalen ustiapena eta erabilera logika zirkularrean jarriz.

3. artikulua. Egoitza soziala

Kooperatibak helbide honetan du egoitza: Kale Nagusia, 24, PK 20249, Itsasondo, Gipuzkoako Lurralde Historikoa. Udalerrri berean lekuz aldatzea Kontseilu Errektoreak erabaki dezake.

4. artikulua. Iraupena

Kooperatibak iraupen mugagabea du.

5. artikulua. Lurralde-eremua

Kooperatibak Euskal Autonomia Erkidegoan jardungo du.

6. artikulua. Hirugarrenetikiko eragiketak

Kooperatibak aukera izango du, bere lurralde-eremuan, bazkide ez diren pertsoneri edo entitateei ondasunak eta zerbitzuak emateko. Indarrean dagoen legediak hirugarrenekin egin daitezkeen eragiketei buruzko baldintzak ezartzen baditu, muga horien balioa kasuan kasuko kategoriarako onartutako gehienekoa izango da.

7. artikulua. Estatutuak aldatzea

Estatutuak aldatu ahal izateko, Batzar Orokorrean hala erabaki beharko da, betiere baldintza hauek betez:

- 1) Proposamena egiten dutenek txosten bat aurkeztu behar dute, idatziz, eta txostenean zergatiak azaldu.
- 2) Deialdian argi eta garbi azaldu behar da zer aldatu nahi den.
- 3) Deialdiaren berri ematean, berariaz adierazi behar da bazkide guztiek eskubidea dutela bai proposatutako aldaketen testua osorik eta bai aldaketen zergatiak azaltzen dituen txostena egoitza sozialean aztertzeko, eta, orobat, dokumentu horiek doan bidali edo eman diezazkietela eskatzeko.
- 4) Erabakia onartzeko, gehiengo arrunta beharko da, estatutu hauetan xedatutakoaren arabera. Estatutuak aldatzeko erabaki hori eskritura publikoan jaso eta Kooperatiben Erregistroan inskribatu beharko da.



II. KAPITULUA BAZKIDEEI BURUZKOA

LEHENENGO ATALA

8. artikulua. Nor izan daitekeen bazkide

Bazkideek sozietate-harremana dute kooperatibarekin.

Modalitate hauetako batean kokatuko dira bazkideak:

1. Bazkide kooperatzaileak
 - a) Bazkide kontsumitzaileak.
 - b) Lan-bazkideak.
 - c) Zerbitzua ematen duten bazkideak.
 - d) Bazkide ez-aktiboak, ez-erabiltzaileak eta eszedentziadunak.
 - e) Bazkide laguntzaileak.
2. Bazkide ez-kooperatzaileak
 - a) Boto-eskubidea duten sozietate-zatien titular diren bazkideak.

Jarraian talde bakoitza deskribatzen da.

1. Bazkide kooperatzaileak

a. Bazkide **kontsumitzaile** izan daiteke edozein pertsona fisiko eta entitate edo erakunde, baldin eta azken hartzailea bada.

b. **Lan-bazkidearen** izaera hartu ahalko du kooperatiban jarduteko eta lan egiteko gaitasuna duen edozein pertsonak, baldin eta, estatutu hauek dakartzaten eskubideak eta betebeharrak onartuta, horiek zintzotasunez eta modu eraginkorrean betetzeko konpromisoa hartzen badu.

Lan-bazkidearen izaera galduz gero, kooperatiban lan egiteari utziko zaio.

Lan-bazkideak izaera mugagabekoak izango dira, baina kooperatibarekin iraupen zehatz bateko lotura soziala izan ahalko dute, betiere legeetan horri buruz ezarrita dauden mugen barruan.

c. **Zerbitzuak ematen dituzten bazkide** izan daitezke beren kontura lan egin eta honako helburuak dituzten pertsona fisiko edo juridikoak: hornidurak, zerbitzuak eta prestazioak eman, edo kooperatibaren jarduerak edo horien emaitzak (ekonomikoa, teknikoa, lanekoa, ekologikoa, antolaketakoa edo funtzionala) erraztu, bermatu edo osatzen dituzten eragiketak egin.

d. **Bazkide ez-aktiboaren edo ez-erabiltzailearen** izaera hartu ahalko du kooperatibaren zerbitzuak erabiltzeari edo kooperatibako jarduna egiteari uzten dion edozein pertsona fisikok edo juridikok, baldin eta, estatutu hauek onartzerakoan bere gain hartutako eskubideen eta betebeharren jakitun, horretarako arrazoi justifikatuak baditu eta gutxienez 5 urteko antzintasuna badu. **Bazkide eszedentziadunaren** izaera hartu ahalko du bere jarduna aldi baterako egiteari uzten dion edozein pertsonak, baldin eta estatutu hauetan eta barne-araudian zehaztutako eskubideak eta betebeharrak onartzen baditu.

e. **Bazkide laguntzailearen** izaera hartu ahalko du edozein pertsona fisikok edo juridikok, publikoa nahiz pribatua, kooperatibaren helburu soziala erabat bete ezin izanda ere hura

lortzen lagundu badezake, eta estatutu hauetan eta barne-araudian zehaztutako eskubideak eta betebeharrak onartzen baditu.

2. Bazkide ez-kooperatzaileak

a. **Boto-eskubidea duten sozietate-zatien titular diren bazkide** izango dira bazkide minoritarioak, zeinen batzar orokorreko boto-eskubidea ekarri den kapitalaren arabera modu eskusiboan edo lehentasunezkoan zehaztu ahal izango den; kapital hori kontuko idazpen edo tituluen bidez azalduko da eta balio-merkatua arautzen duen legeriaren mende egongo da.

9. artikulua. Onartua izateko baldintzak

1. **Bazkide kontsumitzaile** gisa onartua izateko, baldintza hauek bete behar dira:

- a) 18 urte baino gehiago izatea edo nortasun juridiko aski izatea.
- b) Kapital sozialari egin beharreko ekarpenei buruzko konpromisoak onartzea, eta hasierako nahitaezko ekarpena egitea (bazkideentzat estatutu sozial hauetan finkatutakoa edo Batzar Orokorrean erabaki eta indarrean dagoena).
- c) Estatutu sozial hauetan bazkide mota honi ezartzen zaion partaidetza-konpromisoa onartzea.
- d) Kooperatibako organoek hartutako baliozko erabakiak onartzea eta betetzea, eta orobat onartzea eta betetzea indarrean dagoen kooperatibei buruzko legedia, estatutu sozial hauek eta kooperatibaren barne-araudia.
- e) Kooperatibak merkaturatutako produktuak edo zerbitzuak erostea.
- f) Onartua izateko eskaera egitea, idatziz, Kontseilu Errektoreari.

2. **Iraupen mugagabeko lan-bazkide** gisa onartua izateko, baldintza hauek bete behar dira:

- a) Norberaren lan-zerbitzua kontratatzeko gaitasuna izatea.
- b) Kapital sozialari egin beharreko ekarpenei buruzko konpromisoak onartzea, eta hasierako nahitaezko ekarpena egitea (bazkideentzat estatutu sozial hauetan finkatutakoa edo Batzar Orokorrean erabaki eta indarrean dagoena).
- c) Estatutu sozial hauetan bazkide mota honi ezartzen zaion partaidetza-konpromisoa onartzea.
- d) Kooperatibako organoek hartutako baliozko erabakiak onartzea eta betetzea, eta orobat onartzea eta betetzea indarrean dagoen kooperatibei buruzko legedia, estatutu sozial hauek eta kooperatibaren barne-araudia.
- e) Eskaintzen den lanpostua betetzeko behar den titulua edo lanbide-trebakuntza izatea eta probaldia gainditu izanaren txostena lortzea. Txosten hori zuzendaritzak egingo du, eta probaldia gehienez ere sei hilabetekoa izango da, salbuespen batzuetan izan ezik: ezaugarri profesional bereziak behar direla-eta Kontseilu Errektoreak finkatutako lanpostuetan, probaldia hemezortzi hilabetera artekoa izan ahalko da.

Probaldi horretan:

- Bai kooperatibak eta bai izangaiak (lanpostura aurkeztu den pertsonak) harremana eten ahalko dute aldebakarreko erabaki librea hartuta.
 - Izangaia ezingo da hautatua izan sozietateko organoetako karguetarako.
 - Izangaia ez da behartuta egongo ez kooperatiban sartzeko kuota ordaintzera, ez ekarpena egitera.
 - Izangaiari ez zaio egotziko kooperatiban probaldiak iraun bitartean gertatutako galerarik, eta ez du izango erretornu kooperatiborako eskubiderik. Dena den, eskubidea izango du emaitza positiboetatik soldatapekoei aitortutako zenbateko bera jasotzeko.
- f) Onartua izateko eskaera egitea, idatziz, Kontseilu Errektoreari

3. Iraupen mugatuko lan-bazkide gisa onartua izateko, baldintza hauek bete behar dira:

- a) Norberaren lan-zerbitzua kontratatzeko gaitasuna izatea.
- b) Kapital sozialari egin beharreko ekarpenei buruzko konpromisoak onartzea, eta hasierako nahitaezko ekarpena egitea (bazkideentzat estatutu sozial hauetan finkatutakoa edo Batzar Orokorrean erabaki eta indarrean dagoena).
- c) Estatutu sozial hauetan bazkide mota honi ezartzen zaion partaidetza-konpromisoa onartzea.
- d) Kooperatibako organoek hartutako baliozko erabakiak onartzea eta betetzea, eta orobat onartzea eta betetzea indarrean dagoen kooperatibei buruzko legedia, estatutu sozial hauek eta kooperatibaren barne-araudia.
- e) Eskaintzen den lanpostua betetzeko behar den titulua edo lanbide-trebakuntza izatea eta zuzendaritzak lanposturako egokitasunari buruz aldeko txostena egitea.
- f) Sozietate-kontratu bat izenpetzea. Kontratu horretan beharrezkoak diren xedapen guztiak jasoko dira, eta, gainera, berariaz adieraziko da iraupen mugatukoa dela kooperatibarekiko sozietate-harremana.
- g) Onartua izateko eskaera egitea, idatziz, Kontseilu Errektoreari.

4. Bazkide eszedentziadun gisa onartua izateko, baldintza hauek bete behar dira:

- a) Horrelako egoeretarako ezarrita dauden betekizunak eta barne-araudian ezarritako baldintzak betetzea.
- b) Onartua izateko eskaera egitea, idatziz, Kontseilu Errektoreari.
- c) Eszedentzia-aldia amaitutakoan, lan-bazkide gisa onartua izateko eskaera egin beharko da berriro.
- d) Kontseilu Errektoreak erabakiko du onartzea egoki den edo ez, kontuan hartuz estatutu hauetan nahiz Euskadiko Kooperatiben Legean zehaztuta dauden arrazoiak.

5. Zerbitzua ematen duten bazkide gisa onartua izateko, baldintza hauek bete behar dira:

- a) 18 urte baino gehiago izatea edo nortasun juridiko aski izatea.

- b) Kapital sozialari egin beharreko ekarpenei buruzko konpromisoak onartzea, eta hasierako nahitaezko ekarpena egitea (bazkideentzat estatutu sozial hauetan finkatutakoa edo Batzar Orokorrean erabaki eta indarrean dagoena).
- c) Estatutu hauetan bazkide mota honi ezartzen zaion partaidetza-konpromisoa onartzea.
- d) Kooperatibako organoek hartutako baliozko erabakiak onartzea eta betetzea, eta orobat onartzea eta betetzea indarrean dagoen kooperatibei buruzko legedia, estatutu sozial hauek eta kooperatibaren barne-araudia.
- e) Onartua izateko eskaera egitea, idatziz, Kontseilu Errektoreari.
- f) Barne Araubideko Erregelamenduan horrelako pertsonentzat ezartzen diren homologazio irizpideak betetzea.

6. Bazkide laguntzaile gisa onartua izateko, baldintza hauek bete behar dira:

- a) 18 urte baino gehiago izatea edo nortasun juridiko aski izatea.
- b) Kapital sozialari egin beharreko ekarpenei buruzko konpromisoak onartzea, eta hasierako nahitaezko ekarpena egitea (bazkideentzat estatutu sozial hauetan finkatutakoa edo Batzar Orokorrean erabaki eta indarrean dagoena).
- c) Estatutu hauetan bazkide mota honi ezartzen zaion partaidetza-konpromisoa onartzea.
- d) Kooperatibako organoek hartutako baliozko erabakiak onartzea eta betetzea, eta orobat onartzea eta betetzea indarrean dagoen kooperatibei buruzko legedia, estatutu sozial hauek eta kooperatibaren barne-araudia.
- e) Onartua izateko eskaera egitea, idatziz, Kontseilu Errektoreari.

7. Boto-eskubidea duten sozietate-zatien titular diren bazkide gisa onartua izateko, baldintza hauek bete behar dira:

- a) Kapital sozialari egin beharreko ekarpenei buruzko konpromisoak onartzea, eta hasierako nahitaezko ekarpena egitea (bazkideentzat estatutu sozial hauetan finkatutakoa edo Batzar Orokorrean erabaki eta indarrean dagoena).

- b) Estatutu hauetan bazkide mota honi ezartzen zaion partaidetza-konpromisoa onartzea.
- c) Kooperatibako organoek hartutako baliozko erabakiak onartzea eta betetzea, eta orobat onartzea eta betetzea indarrean dagoen kooperatibei buruzko legedia, estatutu sozial hauek eta kooperatibaren barne-araudia.
- d) Onartua izateko eskaera egitea, idatziz, Kontseilu Errektoreari.
- e) Barne Araudian horrelako pertsonentzat ezartzen diren praktika egokien, gardentasunaren eta erantzukizuneko aitortpenaren irizpideak betetzea

10. artikulua. Onartzeari buruzko erabakiak

1. Bazkideak onartzeari buruzko erabakiak Kontseilu Errektoreari dagozkie.
2. Kontseilu Errektoreak onarpena mugatu ahal izateko, bidezko arrazoiren bat izan beharko du, hauetakoren batean oinarritua:
 - a) Kooperatiba gai ez izatea bere produktuak edo zerbitzuak pentsatu eta erabakita dituen gutxienerako kalitate, prezio eta arretaz eskaintzeko bazkideei.
 - b) Objektiboki bazkide gehiago behar ez izatea kooperatibaren antolamendu eta funtzionamendurako.

Bazkide izateko eskaera ezingo da onartu edo ukatu legez kanpoko edo bidegabeko diskriminaziotzat har daitezkeen arrazoiengatik, helburu sozialari dagokionez.

11. artikulua. Onartzeko prozedura

Bazkide gisa onartua izateko eskaera idatziz egin beharko zaio Kontseilu Errektoreari, eta hark gehienez ere 60 eguneko epean ebatzi beharko du, eskaera jaso zen egunetik zenbatzen hasita.

Onarpenari buruzko erabakia idatziz jakinaraziko zaio interesdunari, eta, ezezkoa bada, zergatia azaldu beharko zaio.

Aipatutako epea igaro eta berariazko ebazpenik eman ez bada, bazkide izateko eskaera onartutzat emango da.

12. artikulua. Onarpenari buruzko ebazpenaren kontrako errekurtsua

1. Bazkide izateko eskaera ukatua denean, erabakiaren aurka errekurtsua jarri ahalko du eskatzaileak Errekurtsoen Batzordean (edo, halakorik ez bada, Batzar Orokorrean), baliozko jakinarazpena egin eta hurrengo 20 egun baliodunetan.

Errekurtsoen Batzordeak errekurtsua jaso den egunetik zenbatzen hasita hogeita hamar eguneko epean ebatzi beharko du, eta Batzar Orokorrak, berriz, errekurtsua jaso eta aurreneko batzarrean. Erabakia isilpeko bozketa bidez hartuko da.

Bai kasu batean eta bai bestean, interesdunari entzun ostean hartuko da erabakia.

2. Bazkide izateko eskaera onartua denean, erabakiaren aurka errekurtsua jarri ahalko da Errekurtsoen Batzordean (edo, halakorik ez bada, Batzar Orokorrean), hori ere erabakia jakinarazten denetik 20 egun balioduneko epean, baldin eta gutxienez bazkideen % 10ak hala eskatzen badu.

Onartu den eskaera lan-bazkide izatekoa bada, gainera, erabakia inpugnatu ahalko da, baldin eta gutxienez lan-bazkideen % 20ak hala eskatzen badu.

Edonola ere, Errekurtsoen Batzordeak errekurtsua jaso den egunetik zenbatzen hasita 30 eguneko epean ebatzi beharko du, eta, halakorik ez badago, Batzar Orokorrak errekurtsua jaso eta aurreneko batzarrean hartu beharko du erabakia, interesdunari entzun ostean, isilpeko bozketa bidez.

BIGARREN ATALA

Bazkideen betebeharrak eta eskubideak

13. artikulua. Bazkideen betebeharrak

Eskubide eta betebeharrak sozialek bazkide izateko eskaera onartzen den egunetik aurrera sorraraziko dituzte ondorioak.

Erabakia inpugnatzen bada, etenda geldituko da, Errekurtsoen Batzordeak edota Batzar Orokorrek horri buruzko ebazpena eman arte.

14. artikulua. Bazkideen betebeharrak

Bazkideek betebeharrak hauek dituzte:

- a) Batzar Orokorren eta gainerako organoen bileretara joatea, deialdia egiten bazaie.
- b) Karguren bat betetzeko hautatuak izan badira, onartzea, ez onartzeko bidezko arrazoiren bat ez badago behintzat.
- c) Kooperatibaren helburu soziala osatzen duten jardueretan parte hartzea. Horretarako, partaidetzako gutxieneko modulu edo arau hauek zehazten dira, kooperatibako bazkide mota bakoitzarentzat:
 - **Bazkide kontsumitzaileentzat:** kooperatibak merkaturatzen dituen produktuak eta zerbitzuak erostea, kooperatibak produktu eta zerbitzu horiei jarritako prezioa ordaintzea, eta unean-unean ipinitako ekarpenak egitea eta aldizkako kuotak ordaintzea.
 - **Iraupen mugagabeko lan-bazkideentzat:** beren lan-jarduna eskusiboki kooperatiban egitea, baldin eta betebeharrak horretatik salbuesteko arrazoi

justifikatuak ez badaude behintzat; hala bada, Kontseilu Errektoreak erabakiko du zer egin.

- Gainera, lan-bazkideek kooperatibaren jardueretan gutxienerako partaidetza edo konpromisoa izan behar hori beste entitate batzuetan parte hartuz gauzatu ahalko da, baldin eta kooperatibak entitate horiekin kooperatzen badu edo haien parte bada eta kooperatibak helburu sozialarekin lotuta entitate horietan interes berezia badu. Beste entitate horietan parte hartzen duten bazkideak gutxiengoa izango dira jatorrizko kooperatiban, behar enpresarialek eragindako egoera berezietan izan ezik, dela arrazoi ekonomiko edo teknikoengatik, dela antolaketa edo ekoizpen kontuengatik, dela ezinbestekak bultzatuta. Horren garapena barne-araudian zehaztuko da.
 - **Iraupen mugatuko lan-bazkideentzat:** beren lan-jarduna eskusiboki edo partzialki kooperatiban egitea, kooperatibarekin izenpetutako sozietate-kontratuaren arabera, baldin eta betebeharrak horretatik salbuesteko arrazoi justifikatuak ez badaude behintzat; hala bada, Kontseilu Errektoreak erabakiko du zer egin.
 - **Zerbitzuak ematen dituzten bazkideentzat:** Estatutuetan eta Barne Araudian definitutako printzipio eta arauen arabera jokatzeko, bai eta uneoro arduraz, etikaz eta lanbidez jokatzeko ere.
 - **Bazkide laguntzaileentzat:** kooperatibaren esanetara egotea, helburu soziala garatzeko eta hobetzeko begira eskatzen zaizkien lanak egiteko eta laguntzeko
 - **Boto-eskubidea duten sozietate-zatien titular diren bazkideentzat,** Estatutu hauetan eta Barne Araudian ezarritakoaz gain, onartu eta ulertu behar dute finantza-izaera jakin bati lotutako sozietate-partaidetzak ez duela indargabetzen lortu nahi diren helburu nagusiak ez-finantzarioak izatearen printzipioa.
- d) Jasotako ondasunengatik eta zerbitzuengatik dagozkien kopuruak ordaintzea, Kontseilu Errektoreak erabakitako baldintzetan eta epean.
- e) Kooperatibaren helburu sozialarekin lehian dagoen jarduerarik ez egitea, ezta halakoetan diharduenari lagundu ere, baldin eta Kontseilu Errektoreak espresuki baimentzen ez baditu.

- f) Kooperatibaren jarduerak eta datuak isilpean gordetzea, haien berri ematea sozietatearen interesen kalterako izan badaiteke.
- g) Kapital sozialari egin beharreko ekarpenak ordaintzea, esandako baldintzetan.
- h) Bazkide izateak dakartzan betebeharrak ekonomikoak onartzea.
- i) Galera-egozpena onartzea, Batzar Orokorrek erabakitako zenbatekoan.
- j) Kooperatibak eta oro har kooperatibismoak izen ona galtzea ekar dezakeenik ezer ez esatea publikoki.
- k) Kooperatiban errespetuzko bizikidetzeta eta giro sozial ona izan dadin laguntzea.
- l) Lege-arauetatik eta estatutu hauetatik datozen gainerako eginbehar guztiak betetzea, baita kooperatibako organoek hartutako baliozko erabakietatik datozen guztiak ere.
- m) Xede duen gizarte-esparru osoaren inklusioa sustatzea, bereziki egoera zaugarrienenan diren kolektiboen benetako parte-hartzea ahalbidetuz.

2. Betebeharrak berberak dira bazkide guztientzat, eta lege-arauak, estatutuak eta arauak eta kooperatibako organoek hartutako baliozko erabakiak kontuan hartuz beteko dira.

15. artikulua. Bazkideen eskubideak

1. Bazkideek eskubide hauek dituzte:

- a) Kooperatibako organoetako karguetarako kideak hautatzea eta hautatuak izatea.
- b) Batzar Orokorrean eta partaide diren gainerako organoetan proposamenak egitea eta erabakiak hartzeko garaian hitzarekin eta botoarekin parte hartzea.
- c) Kooperatibaren jardura guztietan parte hartzea, inolako diskriminaziorik gabe.
- d) Kooperatibak eskaintzen dituen ondasunetatik, zerbitzuetatik eta abantaila ekonomiko nahiz sozialetatik onura ateratzea.
- e) Beren eskubideak erabili eta betebeharrak bete ditzaten beharrezkoa den informazio guztia jasotzea, hurrengo artikuluan jasotakoaren arabera.

- f) Kapital sozialari egindako ekarpenak eguneratzea eta berreskuratzea, hala dagokionean.
 - Kontseilu Errektoreak garaiz erantzun beharko dio ekarpenak berreskuratzeko eskaerari; eskatzaileak bazkide-izaera galdu baino lehen.
 - Eskaera onartuz gero, noiz itzuliko diren adierazi beharko du.
- g) Legeetatik eta estatutu hauetatik datozen gainerako eskubide guztiak.

2. Eskubide sozial horiek berdinak dira bazkide guztientzat, eta lege-arauak, estatutuetakoa arauak eta kooperatibako organoek hartutako baliozko erabakiak betez erabiliko dira.

16. artikulua. Informazio-eskubidea

1. Bazkide oren eskubidea izango da:

- a) Kooperatibaren estatutuen eta barne-araudiaren kopia bat eskatzea.
- b) Kooperatibako bazkideen erregistro-liburua eta Batzar Orokorraren akta-liburua aztertzea, eta Batzar Orokorrean hartutako erabakien eta aktaren kopia ziurtatuta eskatzea. Halaber, bazkideen erregistro-liburuan inskribatuta daudenen ziurtagiria ere eska dezake, alde aurretik eskaera arrazoitua eginez gero.
- c) Kontseilu Errektoreak hartutako erabakien kopia ziurtatua eskatzea, erabaki horiek norberari eragiten badiote.
- d) Norbera kooperatibarekiko zer egoeratan dagoen jakinaraztea Kontseilu Errektoreak, eskaera egin eta gehenez ere hilabeteko epean.
- e) Kontseilu Errektoreari kooperatibaren funtzionamenduarekin edo emaitzekin zerikusia duen edozein alderdiri buruzko azalpenak edo txostenak idatziz eskatzea; idazkia aurkeztu eta hamabost egun igaro ostean egiten den lehenengo Batzar Orokorrean erantzun beharko zaio eskaerari.
- f) Egoitza sozialean eskuragarri izatea urteko kontuen berri eta emaitzak aplikatzeko proposamenaren berri ematen duten dokumentuak, deialdiak irauten duen bitartean aztertzeko moduan egon daitezen.

- g) Gutxienez 5 egun lehenago, dokumentazio horri buruzko azalpenak idatziz eskatzea, Batzar Orokorrean erantzun ditzaten.

Egoitza sozialean azertu ahal izatea, deialdiak irauten duen bitartean, Zaintza Batzordearen kudeaketa-txostena edo, hala badagokio, kontu-auditorearena.

2. Aurreko 1. zenbaki horretan ezarritakoaz gainera, bazkideek beharrezkotzat daukaten edozein informazio noiznahi eskatu ahalko dute idatziz, bazkideen boto guztien % 10 osatzen badute, gutxienez. Hala bada, Kontseilu Errektoreak eskatutako informazioa idatziz eman beharko du, gehienez ere 30 eguneko epean.

3. Nolanahi ere, Kontseilu Errektoreak kooperatibaren alderdi sozio-ekonomiko nagusien berri eman beharko die bazkideei edo haiek ordezkutzen dituzten organoei, gutxienez hiru hilean behin, egoki deritzon bidea erabiliz.

17. artikulua. Informazio-eskubidearen mugak eta bermeak

1. Kontseilu Errektoreak uko egin diezaioke informazioa emateari, arrazoituta, baldin eta eskaera ausartegia edo oztopagarria bada edota informazio hori emateak arrisku larrian jar baditzake kooperatibaren interes legitimoak. Dena den, ez da halako salbuespenik izango, baldin eta ukatzen den informazioa Batzar Orokorrean eman beharrekoa bada eta bertaratutako eta ordezkaturako boto guztien erdia baino gehiago agertzen bada eskatutako informazio hori ematearen alde. Beste kasu guztietan ere ez da halako salbuespenik izango hala erabakitzen badu batzarrak, informazio-eskaera egin duten bazkideek errekurtsua jarri ondoren.

2. Nolanahi ere, eskatzaileek inpugnatu ahalko dute Kontseilu Errektorearen ezezkoa, Euskadiko Kooperatiben Legean ezarrita dagoen prozeduraren arabera.

HIRUGARREN ATALA

Bazkideen bajak

18. artikulua. Borondatezko baja

1. Edozein bazkidek nahi duenean utzi ahalko du kooperatiba bere borondatez; horretarako, aurretik abisatu beharko du Kontseilu Errektorea, idatziz eta gutxienez hilabete lehenago, baldin eta arrazoi justifikaturen bat ez bada behintzat.

2. Borondatezko bajak justifikatuak eta ez-justifikatuak izan daitezke.

3. Kasu hauek hartuko dira borondatezko baja ez-justifikatutzat:

- a) Berariaz hitzartuta dauden gutxienerako iraunkortasun-epeak ez betetzea, baldin eta Kontseilu Errektoreak, kasuan kasuko egoera kontuan hartuz, besterik erabakitzen ez badu behintzat; hala izanda ere, bazkideari eskatu ahalko zaio hartuak dituen konpromisoak betetzea eta kalte-galerak ordaintzea.
- b) Bazkideak kooperatibaren jardunarekin lehian dauden jarduerak egiteko asmoa izatea.

4. Kasu hauek hartuko dira borondatezko baja justifikatutzat:

- a) Kooperatiba zatitzea, besteren batekin bat egitea, klasez aldatzea, helburu soziala funtsean aldatzea eta, kapitalari nahitaez ekarpen berriak egin beharra erabaki bada,

bazkideak erabakiaren kontra bozkatu izana edo, Batzar Orokor horretara joan ez bazen, erabaki horren kontrako iritzia adierazi izana.

- b) Kooperatiba beste sozietate mota bat bihurtzen bada, Euskadiko Kooperatiben Legean ezarritakotik eratortzen diren kasu guztiak.
- c) Aurreko 3. zenbaki horretan jaso ez diren gainerako borondatezko baja guztiak.

19. artikulua. Nahitaezko baja

1. Bazkideak kooperatiban nahitaez baja hartu beharko du, estatutu hauen arabera bete behar diren betekizunen bat galtzen badu.

2. Nahitaezko baja Kontseilu Errektoreak erabakiko du, aurretik interesdunari entzun ostean, ofizioz, beste bazkideren batek edo interesdunak berak hala eskatuz gero.

3. Kontseilu Errektorearen erabakia betearazi egin beharko da Errekurtsoen Batzordeak edo Batzar Orokorrak erabakia berretsi duela jakinarazten denetik aurrera edo behin errekurtsoa jartzeko epea igarotakoan. Erabakia betearaztekoa ez den bitartean, bazkideak Batzar Orokorrean bozkatzeko eskubidea izaten jarraituko du.

4. Nahitaezko baja justifikatutzat hartuko da kasu hauetan: bazkide izateko betekizunak galdu izana ez denean gertatu bazkideak kooperatibarekiko betebeharrak betetzeari nahita utzi diolako edo nahitaezko bajaren bidez bidegabeko onura lortu duelako.

20. artikulua. Bajaren ondorioak eta errekurtsoak

1. Bazkide izateari uzteak kooperatibak eskaintzen dituen ondasun eta zerbitzuak ezin jaso ahal izatea dakar.

2. Bajen kalifikazioa Kontseilu Errektoreari dagokio. Bazkideren bat ados ez baldin badago bere bajaren kalifikazioari edo ondorioei buruzko erabakiekin (dela borondatezko baja, dela nahitaezkoa), kanporatzeko kasuetarako Euskadiko Kooperatibaren Legean ezarrita dauden errekurtsioak eta bideak erabili ahalko ditu.

21. artikulua. Bazkide laguntzaileak. Eskubideak eta betebeharrak

1. Bazkide laguntzaileak izango dira dela eremu sozialean dela eremu kooperatiboan kooperatibaren helburu soziala lortzen lagundu dezaketen pertsona fisikoak edo juridikoak.

2. Bazkide laguntzaileak iraupen mugaturako izan ahalko dira, eta haiek onartzeko erabakiak Kontseilu Errektoreak hartuko ditu.

3. Kontseilu Errektoreak hartutako erabakiek ezarriko dute lankidetzako zer baldintza eta gainerako zer eskubide eta betebeharrak espezifikoki izango dituzten onartutako pertsonen. Edonola ere, 14. eta 15. artikuluetan jasotako betebeharrak eta eskubideak izango dituzte, baldin eta hitzartutako lankidetzarekin eta espezifikoekin bateragarriak badira.

4. Bazkide horien multzoak ezin izango du izan boto guztien ehuneko hamar baino gehiago, ez Batzar Orokorrean, ez Kontseilu Errektorean.

22. artikulua. Bazkide ez-aktiboak, ez-erabiltzaileak eta eszedentziadunak. Eskubideak eta betebeharrak

1. Bazkide ez-aktiboak izango dira kooperatibak ematen dituen zerbitzuek erabiltzeari edo jardura kooperatiboa egiteari uzten dioten pertsona fisikoak edo juridikoak, baldin eta horretarako arrazoi justifikaturen bat badute eta gutxienez 5 urteko antzintasuna badute.

2. Bazkide ez-aktiboak eta ez-erabiltzaileak onartzeko erabakiak Kontseilu Errektoreak hartuko ditu.

3. Bazkide horiek estatutuetan ezarrita dauden eskubideak eta betebeharrak izango dituzte, baina horrelako bazkideen multzoak ezin izango du izan sozietatearen boto guztien hamarrena baino gehiago.

4. Bazkide eszedentziadunen eskubideak eta betebeharrak estatutu hauetan eta barne-araudian ezarritakoaren arabera arautuko dira.

LAUGARREN ATALA

Diziplina-arauak eta barne-antolamenduaren oinarriak

23. artikulua. Sozietatearen diziplina-arauak

Bazkideen arteko giroa egokia eta arduratsua izan dadin, eta inola ere ez dadin gaiztotu bazkideen eta kooperatibaren arteko bizikidetzan, sozietatearen diziplina-araudi bat ezarri da.

24. artikulua. Falta sozialak

Falta sozialak arinak, larriak eta oso larriak izan daitezke, kontuan hartuz haien garrantzia, norainokoa eta ondorio ekonomikoak eta/edo sozialak.

1. Falta sozial arintzat hartuko dira hauek:

- a) Kooperatibaren ordena eta garapena behar bezalakoak izateko ezarrita dauden arauak ez betetzea.
- 2) Estatutuetan, araudietan eta funtzionamendu-arauetan jasota dauden aginduak ez betetzea, gutxienez behin, ezjakite barkaezinagatik.
- 3) Kooperatibak deitutako ekitaldi sozialetara eta, batik bat, Batzar Orokorretara ez joatea, arrazoi justifikaturik izan gabe.
- 4) Kooperatibako idazkariari helbide-aldaketa ez jakinaraztea, aldaketa egin eta bi hilabete igaro baino lehen.

2. Falta sozial larritzat hartuko dira hauek:

- a) Falta arinak behin baino gehiagotan egitea urtebetetik beherako epean.
- b) Kooperatibako karguren bat betetzeko hautatua izan eta ez onartzea edo dimititzea, Kontseilu Errektorearen iritziz arrazoi justifikaturik gabe, edota karguan arretaz ez jardutea.
- c) Estatutuetan ezarrita dauden betebeharrak ekonomikoak berandu betetzea.

3. Falta sozial oso larritzat hartuko dira hauek:

- a) Falta larriak behin baino gehiagotan egitea urtebetetik beherako epean.
- b) Eskumena duten organoek hartutako baliozko erabakiak nabarmen ez betetzea.
- c) Kooperatibaren interes materialen edo izen onaren kalterako izan daitezkeen jarduerak egitea, hala nola lehia-eragiketak, iruzurra ekarpenetan edo prestazioetan, Kontseilu Errektoreko kideekiko edo entitatearen ordezkariakiko ageriko begirunerik eza, eta antzekoak.
- d) Kontseilu Errektoreko, Zaintza Batzordeko edo kooperatibako beste edozein organotako kideei dagozkien eginkizunak norberaren gain hartzea.

- e) Kooperatibarentzat baino ez diren gutunak edo ezkutuko dokumentuak isilpean gorde beharra urratzea, edo ezkutuan gorde beharreko datuak kanpotarrei ezagutzera ematea.
- f) Kapital sozialari nahitaez egin beharreko ekarpenak eta Batzar Orokorrak ezarritako kuotak ez ordaintzea.
- g) Jasotako ondasunengatik eta zerbitzuengatik ordaindu beharreko zenbatekoak ezarrita dauden epeetan ez ordaintzea, Kontseilu Errektorearen baimenik gabe.
- h) Kooperatibaren ondasunez bidegabeki jabetzea.
- i) Estatutu hauetan ezarrita dauden betebeharrak behin baino gehiagotan ez betetzea.
- j) Kooperatibak bazkideekin edo hirugarrenekin duen harremanerako garrantzitsuak diren dokumentuak, sinadurak, zigiluak, markak edo antzekoak faltsutzea.

25. artikulua. Falta sozialengatiko zigorrak

1. Falta arinengatik:

- a) Ohartarazpena, idatziz.
- b) Boto-eskubidea etetea, gehienez ere urtebetez.
- c) Hogeita bost eurotik ehun eurora bitarteko diru-zigorra.

2. Falta larriengatik:

- a) 1. zenbakiko guztiak.
- b) Ohartarazpena, idatziz; publiko egin ahalko da, Kontseilu Errektoreak hala erabakitzen badu.
- c) Boto-eskubidea etetea, gehienez ere 2 urtez.
- d) Kooperatibako kargu sozialetarako hautatua izateko gaitasunik gabe uztea, gehienez ere hurrengo bi hauteskundeetan.
- e) Ehun eta bat eurotik lauhun eurora bitarteko diru-zigorra.

3. Falta oso larriengatik:

- a) 1. eta 2. zenbakietako guztiak.
- b) Boto-eskubidea etetea, gehienez ere 4 urtez, eta kooperatiban edozein kargu sozial betetzeko gaitasunik gabe uztea, gehienez ere 8 urtez.
- c) Laurehun eta bat eurotik mila eurora bitarteko diru-zigorra.
- d) Kanporatzea.

26. artikulua. Zigor-prozedurak

1. Falta sozialengatik zigorrak jartzea Kontseilu Errektoreari dagokio; horretarako, aurretik faltari dagokion espedientea irekiko du.

Falten espedienteen dokumentu guztien bi ale beteko dira, eta aleetako bat kooperatiban geldituko da artxibatuta.

2. Kargu-orria instruktore batek edo, gehienez ere, hiruk osatuko dute. Instruktopeak Kontseilu Errektoreak izendatuko ditu, bertako kideen artetik, eta horien egitekoa izango da inkulpatutako bazkideari jakinaraztea faltaren behin-behineko kalifikazioa, falta horri dagokion zigor-proposamena eta deskargu-epea (gutxienez 10 egun, jakinarazten denetik zenbatzen hasita).

Deskargu-orria osatzea bazkideari dagokio, eta Kontseilu Errektoreari zuzendu behar dio. Gero, Kontseilu Errektoreak erabakiko du, falta sozialak egin dituen bazkideari entzun ostean (interesdunak entzunaldia onartzen badu), behin betiko zer kalifikazio eta zigor ezarriko zaizkion faltari.

3. Kontseilu Errektoreak larritzat eta oso larritzat jotako faltei buruz erabakitako zigorren kontra errekurtsua jarri ahalko zaie Errekurtsoen Batzordean eta, halakorik ez bada, Batzar Orokorrean, jakinarazpena egiten denetik 30 eguneko epean. Azkenik, Batzar Orokorraren erabakiak inpugnatu ahalko dituzte interesdunek, Euskadiko Kooperatiben Legean ezarrita dagoen prozesu-izapidearen bidez.

4. Falta arinak hilabeteko epean preskribatzen dira; larriak, 2 hilabeteko epean, eta oso larriak, 3 hilabeteko epean.

Preskripzio epea arau-haustea egiten den egunean hasiko da. Arau-hauste jarraituen edo iraunkorren kasuan, arau-haustea amaitu zenetik hasiko da epea.

Preskripzio epea eten egingen da zehapen prozedura hasten denean, eta berriro egingen da 4 hilabeteko epean ebazpena eman edo jakinarazten ez bada.

Interesduna jakitun izanda zigor-prozedura hasten denean, preskripzio-epea eten egingo da, eta berriro ere hasi egingo da preskripzio-epea, baldin eta zigor-espeditatea etenda geratzen bada, ustez arau-haustea egin duenari ezin egotz dakioken arrazoiren batengatik, inolako ebazpenik eman edo jakinarazi gabe, lau hilabete baino gehiagoan.

Zigor oro betearazi egin beharko da errekurtsua aurkezteko epea amaitu eta hurrengo egunean, errekurtsorik aurkeztu ez bada, edo behin betiko erabakia hartu eta hurrengo egunean.

27. artikulua. Kanporatzea

1. Kontseilu Errektoreak baino ezin du erabaki bazkide bat kanporatzea, eta soilik estatutu hauetan jasotako falta sozial oso larriagatik eta aurreko artikuluko 2. zenbakian ezarritakoaren arabera bideratutako espedientearen ondorioz.

2. Kontseilu Errektoreak erabakia bazkideari jakinarazi beharko dio, idatziz, erabakia hartzen denetik hamabost egun naturaleko epean.

Interesdunak erabaki horren aurka errekurtsua jarri ahalko du, jakinarazten zaionetik 30 eguneko epean, Errekurtsoen Batzordean eta, halakorik ez badago, Batzar Orokorrean.

3. Errekurtsuari buruzko ebazpena Errekurtsoen Batzordeak hiru hilabeteko epean emango du, interesduna bertan dela eta hari entzun ostean, eta, halakorik ez badago, Batzar Orokorrak hurrengo lehenbiziko saioan emango du, isilpeko bozketa bidez.

4. Kanporatzeko erabakia betearazi egin beharko da Errekurtsoen Batzordeak edo Batzar Orokorrak erabakia berretsi duela jakinarazten denean edo errekurtsua aurkezteko epea amaitzen denean, errekurtsorik aurkeztu ez bada.

Edonola ere, lan-bazkideak kooperatibari egiten dion lan-prestazioa eten ahalko da Kontseilu Errektoreak kanporatzeko erabakia hartzen duen egunetik aurrera, baina lan-aurrerakina jasotzeko eskubidea izaten jarraituko du behin-behinean, lanean jardungo balu bezala.

5. Errekurtsoen Batzordeak edota Batzar Orokorrak bazkidea kanporatzeko erabakia berresten badu, interesdunak erabakia inpugnatu ahalko du, jakinarazten denetik 2 hilabeteko epean, Euskadiko Kooperatiben Legean araututa dagoen prozesu-bidearen bidez.

6. Bestalde, lan-bazkideak kanporatu ahalko dira Batzar Orokorrak aurreikusitako eta onartutako falta sozio-laboral oso larriengatik, direla organo sozial horren erabaki espezifikoen bidez onartuak, direla barne-araudian jasoak. Kanporatua izan den lan-bazkideak errekurtsua jarri ahalko du, barne-errekurtsioetarako bideak agortu ondoren, Lan Jurisdikzioaren aurrean; alde horretatik, kanporatze-erabakiaren jakinarazpena kaleratze-gutunaren parekotzat hartuko da.

28. artikulua. Barne-antolamendu funtzionalerako oinarrizko alderdiak

1. Lanaren antolamenduari eta ordainsariari dagozkienak:

- a) Kooperatibaren zuzendariari edo gerenteari dagokio lanaren antolamendua eta laneko diziplina ezartzea eta aplikatzea, Kontseilu Errektoreak emandako eskuordetzaren arabera.
- b) Lan-bazkideek lanpostuaren arabera eta lanean izandako eraginkortasunaren edo lanari ateratako etekinaren arabera lan-aurrerakinak jasoko dituzte.
- c) Lan-bazkideek hilerio jasoko dituzte lan-aurrerakinak, eta inola ere ezingo dira izan lanbide arteko gutxieneko soldata baino txikiagoak, hileko zenbatekoan.
- d) Lan-aurrerakinak kooperatibaren emaitza ekonomikoen kontura jasotzen diren aldizkako sariak dira, eta ez dute, beraz, soldata-izaera. Horrenbestez, lan-aurrerakinen zenbatekoa emaitza horien arabera izango da azken batean.
- e) Lan-aurrerakinak, urtean egin beharreko lanorduak eta Euskadiko Kooperatiben Legean aipatzen diren gainerako alderdiak Kontseilu Errektoreak zehaztuko ditu, baina lan-aurrerakinen gehieneko zenbatekoak ezingo du gainditu sektore bereko soldatapekoentzat lan-jardueraren eta lanbide-kategoriaren arabera hitzarmen kolektiboan ezarrita dauden ordainsarien ehuneko ehun eta berrogeita hamar.

2. Pertsona fisikoei dagozkien zerga-kontuak lan-bazkideen ardurapekoak izango dira, eta inola ere ezingo ditu subrogatu kooperatibak.

3. Lan-bazkideei lan-erregimenaren aldetik dagozkien kontuak barne-araudian arautuko dira, betiere Estatutu hauetan ezarritakoa betez.

Gizarte Segurantzaren estaldurari dagokionez, lan-bazkideak (bai finkatuak eta bai probaldian daudenak), besteren konturako langileekin parekatuko direnez, Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorrean sartuko ditu kooperatibak.

4. Kooperatibako soldatapeko langileek ezingo dute jaso sektore bereko soldatapekoentzat lan-jardueraren eta lanbide-kategoriaren arabera hitzarmen kolektiboan ezarrita dauden ordainsarien ehuneko ehun eta berrogeita hamar baino gehiago.

III. KAPITULUA ORGANO SOZIALEI BURUZKOA

29. artikulua. Organo sozialak

Hauek dira kooperatibako organo sozialak:

- a) Batzar Orokorra
- b) Kontseilu Errektorea
- c) Zaintza Batzordea
- d) Errekurtsoen Batzordea

Behar bezala funtzionatzeko eta garatzeko egokiak iruditzen zaizkion organo guztiak eratu ahalko ditu kooperatibak, eta bakoitzari nahi dituen ahalmenak emango dizkio, legeak organo bakoitzarentzat berariaz ezarriak dituenak izan ezik.

LEHENENGO ATALA

Batzar Orokorrari buruzkoa

30. artikulua. Kontzeptua eta eskumenak

1. Batzar Orokorra bazkideen bilera da, eta bere eskumenekoak diren gaiei buruz eztabaidatzeko eta erabakiak hartzeko eratzten da.

Batzar Orokorraren erabakiek hartzen diren egunetik aurrera dituzte ondorioak, eta bazkide guztiek bete behar dituzte.

2. Batzar Orokorrari soilik dagokio erabaki hauek hartzea:

- a) Isilpeko bozketa bidez izendatzea eta kentzea Kontseilu Errektoreko kideak, Zaintza Batzordekoak, Errekurtsoen Batzordekoak eta likidatzaileak, eta horien aurkako erantzukizun-akzioak gauzatzea.
- b) Kontu-auditoreak izendatzea eta, bidezko arrazoiren bat badago, kargutik kentzea.
- c) Kudeaketa soziala aztertzea, urteko kontuak onartzea, eta soberakinen banaketa edo galeren egozpena erabakitzea.
- d) Kapitalari egin beharreko ekarpen berriak onartzea, eta kooperatiban sartzeko kuotak nahiz aldizkako kuotak finkatzea.
- e) Obligazioak, partaidetza-tituluak edo partaidetza bereziak jaulkitzeko erabakia hartzea.
- f) Kooperatibaren bat-egitea, zatiketa eta desegitea erabakitzea.
- g) Bigarren mailako kooperatibak, korporazio kooperatiboak eta antzeko entitateak eratzea, eta horietara atxikitzea edota horietatik banantzea.
- h) Kooperatibaren egitura ekonomikoa, antolamendua edo funtzionamendua nabarmen aldatzea dakarten erabakiak hartzea. Besteak beste:

- Kooperatibaren edo haren negozio-adar baten aktibo eta pasibo guztiak besterentzea.
 - Helburu soziala aldatzea, aldatetak berekin badakar kooperatiba sortzeko hasierako xedeak eta jarduerak ez betetzea eta ez gordetzea.
 - Kooperatiba mota aldatzea.
- i) Estatutu sozialak, barne-araudia, delituei aurrea hartzeko eredia eta, halakorik badago, berdintasun-plana onartzea eta aldatzea.
- j) Legeak ezartzen dituen gainerako erabaki guztiak.

3. Eskumen horiek ezin dira eskuordetu, baldin eta Euskadiko Kooperatiben Legean ezarrita dagoenaren arabera kooperatiba-integrazioa gertatu ez bada behintzat.

4. Batzar Orokorak kooperatibaren interesekoa den edozein gairi buruz eztabaidatu dezake, baina ezingo du nahitaez bete beharreko erabakirik hartu beste organo sozial baten eskumenekoak diren gaiei buruz.

31. artikulua. Batzar Orokor motak

1. Batzar Orokorra ohikoa edo ezohikoa izan daiteke.

2. Ohiko Batzar Orokorak helburu nagusitzat ditu kudeaketa soziala aztertzea, urteko kontuak onartzea eta soberakinen banaketari edo galeren egozpenari buruzko erabakiak hartzea, baina beste edozein gai ere sartu ahalko da gai-zerrendan, Batzar Orokorren eskumenekoak bada.

3. Gainerako Batzar Orokor guztiak ezohikoak dira.

32. artikulua. Deialdia

1. Batzar Orokorrerako deia Kontseilu Errektoreak egingo du.

2. Ohiko Batzar Orokorra sozietatearen ekitaldia itxi eta hurrengo 6 hilabeteak igaro baino lehen egin beharko da. Epe hori igaro, eta ez bada ez batzarrik ez deialdirik egin, edozein bazkidek errekeritu ahalko dio Kontseilu Errektoreari, idatziz, agiri sinesgarri bidez, betebeharrak hori bete dezala. Errekerimendua jaso duenetik 15 eguneko epean Kontseilu Errektoreak eskaerari erantzuten ez badiu, bazkideak deialdi judiziala egiteko eskatu ahalko dio egoitza sozialeko Lehen Auzialdiko epaileari.

3. Ezohiko Batzar Orokorra edozein unetan bilduko da, hauek deitu edo eskatuta:

- a) Kontseilu Errektoreak berak deituta.
- b) Zaintza Batzordeak eskatuta.
- c) Bazkideek eskatuta, idatziz, agiri sinesgarri bidez, baldin eta bazkide horiek boto guztien gutxienez % 20 badira.

b) eta c) kasuetan, eskaera Kontseilu Errektoreari bidali beharko zaio, idatziz, errekerimendu moduan, gai-ordena eta guzti. Batzarrerako deia errekerimendua jaso denetik gehienez ere 30 eguneko epean egin beharko da. Epe horretan deialdia egiten ez bada, deialdi judiziala egin dadila eskatu ahalko da, aurreko 2. zenbakian bezala.

4. Batzar Orokorrerako deia iragarki bidez egingo da, egoitza sozialean ongi ikusteko moduan eta jendaurrean jarrita, eta kooperatibak bostehun bazkide baino gehiago baldin baditu, egoitza sozialaren lurralde historikoan zabalkunde handia duen egunkari batean ere iragarriko da deialdia. Kooperatibak web-orri korporatibo bat izanez gero (Kooperatiben Legean ezarrita dagoenaren arabera sortua), orri horren bidez ere gauzatu ahalko da Batzar Orokorrerako deialdia egunkari batean iragartzeko betebeharrak hori.

5. Deialdian nahitaez adierazi behar da, gutxienez, bilera zer egun, ordu eta lekutan izango den, bai lehen deialdian, bai bigarrenean eta bai hirugarrenean ere, eta batetik bestera ordu erdiko tarteak utzi beharko da gutxienez. Horretaz gain, gai-zerrenda ere adierazi behar da, argi eta garbi eta nahikoa xehetasunez azalduta.

6. Batzar Orokorrerako deia bilera-eguna baino gutxienez 10 egun eta gehienez 60 egun lehenago iragarri beharko da.

7. Gai-zerrendan beste gairen bat edo gehiago sartzea nahi duten bazkideek horretarako eskubidea izango dute, baldin eta boto guztien gutxienez % 20 badira, eta eskaera Kontseilu Errektoreari bidali beharko diote, idatziz, deialdia egin eta hurrengo 5 egunen barruan. Kontseilu Errektoreak sartu egin beharko ditu, eta gai-zerrenda berria argitaratu, aurreko 4. zenbakian adierazitako iragartze-modu berean, bilera-eguna baino 4 egun lehenago gutxienez; edonola ere, deialdia ezingo da atzeratu.

33. artikulua. Funtzionamendua

1. Batzar Orokorra egoitza soziala dagoen herrian egin beharko da, baldin eta lokal egokirik lortu ezin dela-eta Kontseilu Errektoreak beste herri bat finkatzen ez badu behintzat, betiere lurralde historiko berean. Bestalde, Batzar Orokorrak aukera eman ahalko du geografikoki urrun dauden bazkideek baliozko erabakiak hartzen parte hartu eta beren nahia adieraz dezaten bideokonferentzia bidez, edo antzeko beste sistema baten bidez ere bai, ahalbidetzen badu irudiaren eta soinuaren aldibereko eta bi noranzkoko komunikazioa eta ikusizko, entzunezko eta hitzezko interakzioa.

2. Batzar Orokorra baliozkoa izango da, lehen deialdian, botoen gehiengoa bertaratuta edo ordezkaturata badago; bigarren deialdian, botoen gutxienez % 10 edo 100 boto bertaratuta edo ordezkaturata badaude; eta hirugarren deialdian, bertaratuta edo ordezkaturata dauden botoen kopurua edozein dela ere.

3. Batzar Orokorrera joateko eskubidea izango dute deialdia egin zen egunean bazkide ziren guztiek, baldin eta eskubide hori kenduta ez badaude. Bertaratuko ez diren bazkideek aukera izango dute Batzar Orokor bakoitzean beste bazkide batez ordezkatuak izateko, baimena idatziz emanda.

Bazkideek ezin izango dute, bakoitzak bereaz gain, bi baino gehiago ordezkatu.

Bestalde, edozein bazkideren ordezkari gisa jardun ahalko du haren ezkontideak edo familiako besteren batek, baldin eta odol-ahaidetasuneko edo ezkontza-ahaidetasuneko lehen mailako senidea bada eta jarduteko gaitasun osoa badu, eta Batzar Orokor orotan haren baliozko ordezkari izan ahalko da, baliogabetua ez den bitartean.

Nolanahi ere, ezinbestekoa izango da ordezkaritza idatziz egiaztatzea, Batzar Orokor bakoitzean, eta ordezkaritza-idazkian nahitaez agertu beharko dute bazkidearen baimenak eta sinadurak, bai eta ordezkari gisa jardungo duen ezkontidearen edo odol-ahaidetasuneko edo ezkontza-ahaidetasuneko lehen mailako senidearen berariazko onarpenak eta sinadurak ere.

Zaintza Batzordeak erabakiko du ordezkaritza-idazkiak baliozkoak diren eta horiekin nahikoa ote den.

4. Batzar Orokorreko burua Kontseilu Errektorearen lehendakaria izango da; hark ezin badu, burua lehendakariordea izango da, edo, hark ere ezin badu, Batzarrak eginkizun horretarako izendatzen duen pertsona.

Batzarreko buru edo lehendakariaren egitekoak izango dira eztabaidak gidatzea, bere ardurapean ondo zaintzea batzarra desbideratu ez dadin eta gai-zerrendan jasota ez dagoen ezein gairi buruzko erabakirik har ez dadin (Legeak berariaz baimentzen dituen gaiei buruzkoak izan ezik), batzarrean ordena gordetzea eta legezko izapideak betearaztea.

Batzar Orokorreko idazkari-lanak Kontseilu Errektoreko idazkariak egingo ditu, edo, bestela, Batzar Orokorrak eginkizun horretarako izendatzen duen pertsonak.

5. Gai-zerrendan jasota ez dauden gaietarako erabakiak baliogabeak izango dira, legeak berariaz baimentzen dituen buruzkoak izan ezik.

Edonola ere, horretarako txanda iritsitakoan, edozein bazkidek proposamen edo iradokizun zehatzak egin ahal izango ditu ahoz Batzar Orokorrean, baina haiei buruzko erabakiren bat hartu beharra badago, boto guztien gutxienez % 20k alde egon beharko dute, eta, horretarako, gai horiek lantzeko beste Batzar Orokor baterako deia egin beharko da.

6. Bozketak isilpekoak izango dira legean eta estatutu hauetan jasotako kasuetan eta Batzar Orokorrean bertaratuta eta ordezkaturik dauden bazkideen gutxienez % 10ek hala eskatzen dutenean. Gainerako kasuetan, lehendakariak erabakiko du nola egin.

7. Kontseilu Errektoreko kideek Batzar Orokorrean joan beharra izango dute. Bazkide ez diren zuzendariak, gerenteeak eta teknikariak, berriz, Kontseilu Errektoreak berariaz deitzen dituztenean joan beharko dute, eta hitza izango dute, baina botorik ez.

Batzar Orokorrak beste edonor bileran egotea baimendu ahalko du.

34. artikulua. Batzar Orokorren akta

1. Batzar Orokorrean hartutako erabakiak aktan jasoko dira. Akta idazkariak idatziko du, eta, gero, akta-liburuan jasoko du, datu hauek adierazita:

a) Bilera noiz eta non izan den.

- b) Deialdia noiz eta zer modutan egin zen, Batzar Orokor unibertsalak direnetan izan ezik.
- c) Deialdiaren testua, osorik.
- d) Zenbat bazkide izan diren batzarrean (zehaztu egin behar da zenbat bertaratu diren pertsonalki eta zenbat izan diren ordezkatuak), eta batzarra lehen, bigarren edo hirugarren deialdian egin den.
- e) Eztabaidatu diren gaien laburpena, eta aktan jaso daitezela eskatutako iritzien laburpena.
- f) Hartu diren erabakien edukia.
- g) Bozketen emaitzak, eta erabaki bakoitza zenbateko gehiengoarekin hartu den. Erabakiaren aurkako botoa eman duenak hala eskatzen badu, aurkakotza hori ere jaso behar da.
- h) Aktaren onarpena, bilera bukatu ondoren hala gertatzen bada.

2. Batzarrean izan diren pertsonen zerrenda aktaren hasieran jasoko da, edo aktari eranskin gisa erantsiko zaio, idazkari-lanak egin dituenaren sinadura eta lehendakari-lanak egin dituenaren oniritzia dituela. Batzarrean izan diren pertsonen zerrenda hori fitxategi bidez ere osatu ahalko da, edo euskarri informatikoan jaso, betiere erregistroko erregelamenduan ezarrita dauden baldintzak betez.

3. Akta Batzar Orokorrak berak onartu ahalko du, batzarra egin ondoren, edo, bestela, eta nahitaez, hamabost eguneko epean lehendakari-lanak egin dituenak eta batzarrak izendatutako bi bazkidek onartu beharko dute; azken kasu horretan, bi bazkide horiek eta idazkari-lanak egin dituenak akta sinatu beharko dute.

4. Batzar Orokorrean izan den edonork eskubidea izango du aktaren edo batzarrean hartutako erabakien testu osoaren ziurtapenak eskatzeko. Ziurtagiria egiten den egunean idazkari den pertsonak emango ditu ziurtapen horiek, lehendakariaren oniritziarekin.

5. Erabakietan esaten direnek onartzen diren unetik aurrera izango dituzte ondorioak.

6. Erregistroan inskriba daitezkeen erabakiak Kooperatiben Erregistroan aurkeztu beharko dira, hogeita hamar eguneko epean, akta onartu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita.

35. artikulua. Boto-eskubidea

1. Bazkide bakoitzak boto bat izango du. Dena den, bazkide kontsumitzaileen multzoak gutxienez boto guztien % 60 izango dute; lan-bazkideek, gehienez ere boto guztien % 10; zerbitzua ematen duten bazkideek, gehienez ere boto guztien %10; boto-eskubidea duten sozietate-zatien titular diren bazkideek, gehienez ere boto guztien % 5; bazkide laguntzaileek, gehienez ere boto guztien % 10; bazkide ez-aktiboek % 5. Bestalde, lan-bazkiderik, zerbitzu-bazkiderik, bazkide laguntzailerik eta bazkide ez-aktiborik ez dagoen garaietan, haiei dagozkien botoak bazkide kontsumitzaileei egokituko zaizkie.

2. Ezein bazkidek ez du izango boto-eskubiderik, honako interes-gatazka hauek baldin badaude:

- a) Hartu beharreko erabakiak bazkideari zuzenean edo soilik hari eragiten baldin badio, baldin eta diziplina-dosierra ireki zaion gehiengo baten parte ez bada behintzat.
- b) Kooperatibaren gaineko erantzukizun-akzioen baten arduraduna baldin bada.

36. artikulua. Gehiengoak

1. Batzar Orokorrean erabakiak hartzeko, baliozko botoen erdiak baino gehiago beharko dira, eta ez dira zenbatzekoak izango ez boto zuriak ez abstentzioak, legean edo estatutu hauetan ezarritakoaren arabera gehiengo indartuak behar direnean izan ezik.

2. Kooperatibaren transformazioa, bat-egitea, zatiketa eta desegitea erabakitzeko, ezinbestekoa izango da batzarrean bertaratutakoen eta ordezkaturakoen botoen bi hereneko gehiengoa alde egotea, betiere bertaratutakoen eta ordezkaturakoen boto kopurua txikiagoa bada kooperatibako boto guztien % 75 baino.

3. Kontseilu Errektoreko kideak kargugabetzea erabakitzeko, Estatutu hauetako 39. artikuluko 6. zenbakian jasoa, ezinbestekoa izango da batzarrean bertaratutakoen eta ordezkaturakoen botoen bi herenek alde bozkatzea.

37. artikulua. Erabakiak inpugnatzea

1. Batzar Orokorrek hartutako erabakiak inpugnatu ahalko dira, legearen edo estatutu hauen aurkakoak badira, edo kooperatibaren interesen kalterako eta bazkide baten edo gehiagoren edo hirugarrenen mesederako badira.

2. Erabaki bat ezingo da inpugnatu, hura ondoriorik gabe utzi bada edo baliozkoa den moduren batean beste erabaki batez ordeztu bada. Inpugnatzeko akzioetarako legitimazioa dute hauek:

- a) Bazkide guztiek.
- b) Kontseilu Errektoreko kideek.
- c) Zaintza Batzordeko kideek.
- d) Interes legitimoa duen edozein hirugarrenek.

Inpugnazio-akzioa urtebeteko epean iraungiko da, erabakiak ordena publikoaren aurkakoak direnean izan ezik.

3. Artikulu honetan aurreikusitako iraungitze-epeak erabakia hartu zenetik aurrera hasiko dira zenbatzen; erabakia Kooperatiben Erregistroan inskribatzekoa bada, berriz, inskribatzen den unetik aurrera.

4. Inpugnazio-akzioak Euskadiko Kooperatiben Legean ezarrita dagoenaren arabera tramitatuko dira.

5. Inpugnazio-akzioaren ondorioz emandako epaia hura baiestekoa bada, bazkide guztiengan izango ditu ondorioak.

BIGARREN ATALA

Kontseilu Errektoreari buruzkoa

38. artikulua. Kontzeptua eta eskumenak

1. Kontseilu Errektorea kide anitzeko kudeaketa-organoa da, eta hari baino ez dagokio kooperatibaren ordezkaritza. Horretaz gain, Kontseilu Errektoreak baliatuko ditu legean edo estatutu hauetan beste organo sozial batzuentzat berariaz erreserbatuta ez dauden eskumen guztiak.

2. Kontseilu Errektorearen eskumen espezifikoak dira:

- a) Bazkideen onarpena eta baja erabakitzea, betiere estatutu hauetan ezarritakoaren arabera.

- b) Kooperatiba ordezkatzeta, delegatzeko eskumenarekin eta ardura osoz, edozein ekitaldi eta kontratu motatan, eta, batik bat, partaide den entitateetako organo sozialetan.
- c) Zuzendari nagusia edo gerentea izendatzea, eta, hark proposatuta, sailtako zuzendariak izendatzea, bai eta haiek kargutik kentzea eta haien eskumenak, betebeharrak eta ordainsariak finkatzea ere. Beharrezkoa denean, haien aurkako erantzukizun-akzioak gauzatzea.
- d) Langileen baldintza ekonomikoak eta lankidetzeta-baldintzak hitzartzea. Edonola ere, kooperatibako besteren konturako langileen edo, baldin badaude, lan-bazkideen ordainsariak ezingo dira inola ere handiagoak izan sektore bereko soldatapekoentzat lan-jardueraren eta lanbide-kategoriaren arabera hitzarmen kolektiboan ezarrita dauden ordainsarien ehuneko ehun eta berrogeita hamar baino.
- e) Kooperatibaren martxa antolatzea, zuzentzea eta kudeatzea.
- f) Gai hauei buruzko ohiko erabakiak hartzea: estatutu hauetan jasota dauden eskubideekin eta betebeharrekin lotutako gaiak, lanaren antolaketarekin lotutakoak, eta langileen lan-erregimenari eta diziiplina-araudiari buruzkoak; batik bat, arrazoi ekonomikoek, teknikoek, antolamenduzkoek, ekoizpenezkoek edo ezinbestek hartaratuta, beharrezkoa denean.
- g) Estatutuetako eta araudiko aginduak edo Batzar Orokorraren erabakiak betearazteko behar direnak egokiro aplikatzeko beharrezkoak diren araudi funtzionalak onartzea.
- h) Helburu soziala gauzatzeko behar edo komeni diren ekitaldiak eta kontratuak egitea, alde batera utzi gabe ondasun higiezinak erostea edo besterentzea, eskubide errealak eratzea, baita hipotekarena eta araudi berezikoa den errentamenduarena ere, eta kooperatibak baimenduak dituen edozein motatako negozioak eta eragiketak egitea.
- i) Sozietateari zor zaion diru kopuru oro erreklamatzeta eta kobratzea, baita hauetan ere: ogasunaren ordezkartzetan, ministerioetan, Gordailu Kutxa Orokorrean eta haren sukurtsaletan, eta gainerako bulego, institutu, entitate eta erakunde publiko nahiz pribatu guztietan, izan Espainiako estatukoak, atzerrikoak edo Europar Batasunekoak. Eta, oro har, betebeharrak guztiak bete daitezela eskatzea, eta, horretarako, dagozkien ordainketa-gutunak formalizatzea ordainagiritan eta edozein likidazio edo hitzarmen mota onartzea.
- j) Transakzio eta eragiketa hauek egitea:

- Sozietatearen funtsak eta ondasunak erabiltzea, erreklamatzeko, jasotzea eta kobratzea, bai partikularrengandik eta bai bulego publikoetatik, eta, horretarako, Kutxa Orokorrean eta sozietatearen interesetarako komeni den lekuan gordailuak eratzea edo handik ateratzea.
- Sozietatearen izenean sinatzea eta jardutea, estatuko entitateekin edo atzerrikoekin egin beharreko era guztietako banku-eragiketetan, baita Espainiako Bankuarekin egin beharrekoetan ere; besteak beste, hauek irekitzea, ixtea eta erabiltzea: aurrezki-libretak, epeko diru-ekarpenak eta banku-gordailuak, bai esku-dirutan, bai kreditutan eta bai baloretan.
- Kanbio-letrak, agindurako zor-agiriak eta gainerako merkataritzako efektuak eta igorpenak negoziatzea, deskontatzea, interbenitzea, konpentsatzea, adieraztea, kobratzea, ordaintzea, salbustea, onartzea, abalatzeko, endosatzea eta protestatzea, ez onartzeagatik edo ez ordaintzeagatik eta ziurtasun handiago baterako.
- Edozein salgai motarekin eragiketak egitea.
- Kooperatibarenak izanik korrespontsalen esku dauden funtsak eta ondasunak erabiltzea.
- Segurtasun-kutxak alokatzea eta irekitzea.
- Maileguz dirua hartzea, kooperatibaren eta haren baloreen gaineko berme pertsonalarekin.
- Kreditu ez-endosagarriak transferitzea.
- Merkataritza-eragiketak fidantzatzea.
- Kreditu-polizak abalatzeko.
- Funtse-, errenta-, kreditu- edo balore-transferentziak egitea, dirua igortzeko edo mugitzeko edozein prozedura erabiliz; kontu-kitapenak onartzea; gordailuak edo fidantzak eratzea eta ateratzea; kontuak osatzea; trukeak egitea, eta abar. Horiek guztiak Espainiako Bankuan nahiz Banku Ofizialean egin ahalko ditu, bai eta bestelako banketxe eta aurrezki pribatuko entitateetan ere, hala estatukoetan, nola atzerrikoetan.
- Kooperatibarekin lotura ekonomikoren bat duten pertsonari edo entitateei sozietatearen izenean berme ematea, fidantzatuz, abala emanaz edo beste

edozein modutan, betiere egintza helburu sozialaren barruan badago, zuzenean edo zeharka.

- Lehiaketetan eta enkanteetan parte hartzea, era guztietako kontratuak egitea (egoki iritzitako baldintzetan), eta horiek zuzentzea, aldatzea edo deuseztatzea.
- k) Batzar Orokorrak erabakitako interesak noiz ordaindu erabakitzea.
- l) Kooperatibari komeni zaizkion eragiketak (kredituak, maileguak edo sinadura-bermeak) adostea.
- m) Entitate publiko eta pribatuen aurrean abalak ematea, eta zuzenbidez onartuta dagoen edozein titulu mota (zor publikokoak edo balore higigarri edo higiezinenak) erosi, saldu, harpidetu eta gordailutzea, eta, are, horiek komenigarria ikusten den moduan eraldatzea.
- n) Batzar Orokorrak erabakitakoa kontuan hartuz, obligazioak, partaidetza-tituluak edo partaidetza bereziak jaulkitzeko eta ekarpenak harpidetzeko beharrezkoa dena erabakitzea.
- o) Funts erabilgarrien inbertsio zehatza zehaztea, aurrekontuak egitea, gastuak baimentzea, eta kooperatibaren ahalordedun eta ordezkari izango direnak izendatzea, bai eta bakoitzari egoki iritzitako ahalmenak ematea ere.
- p) Ohiko eta ezohiko Batzar Orokorretarako deiak egitea, eta haietan erabakitakoak gauzatzea.
- q) Pertsona zehatzei ahalordeak ematea edo kentzea, sozietatearen negozioko zenbait adar zuzentzeko edo zenbait helburutarako.
- r) Estutu hauen interpretazioari buruz sortzen diren zalantzak argitzea, eta hurrengo Batzar Orokorrean horren berri ematea.
- s) Estatutu hauetan bereziki esleitutakoak.
- t) Kontseilu Errektoreko kideek karguari uko egindakoan, bete gabeko postuak ordeztu behar direnean eta, oro har, organoaren beraren barne-erregulazio funtzionalari buruzko gaiak sortzen direnean, egoki diren erabakiak hartzea.
- u) Batzar Orokorrari estatutu sozialen aldaketak eta barne-araudiaren onarpena eta aldaketa proposatzea.

- v) Urtero, Ohiko Batzar Orokorrari urteko kontuak aurkeztea eta soberakin garbiak nola banatu (edo galerak nola egotzi) proposatzea.
- w) Epaitegi eta auzitegi arrunt edo berezien aurrean eta Estatu, lurralde-administrazio autonomo, probintzia edo udalerriko bulego, agintari, korporazio edo erakundeen aurrean kooperatibari dagozkion eskubide edo akzioak egikaritzeko komenigarria iruditzen zaiona erabakitzea, bai eta errekurtsu arrunt eta apartekoak jartzeari buruz ere, eta, horretarako, ordezkari, prokuradore edo letraduak izendatzea, kooperatiba ordezkari eta defenda dezaten, eta pertsona horiei egoki diren ahalmenak ematea, beharrezkoa den eran, baita edonolako adiskidetze, espediente, auzi, erreklamazio, errekurtsu edo jarduketatan eta edozein prozedura-egoeratan ados jartzeko edo atzera egiteko, prozedura geldiaraztea eskatzeko eta beharrezko izan litekeen guztirako ere, zabaltasun osoz transakzio judiziala egitea barne.
- x) Sute-arriskueterako, garraiorako, lan-istripuetarako, lapurretetarako eta gainerakoetarako aseguruak kontratatzea, horien primak ordaintzea eta aseguratzaileren kobrantza eskatzea, eta formulatutako erreklamazio guztien transakzioa egitea.
- y) Ordainketak eteteko edo kiebra jotzeko eta kooperatiba desegiteko espedienteak sustatzea, eta prozesu horretan bere eskumenekoak diren faseak betetzea.
- z) Batzar Nagusiari kooperatibaren desegitea proposatzea.

3. Aurreko zerrenda horrek azalpen gisa balio du soil-soilik, eta ez ditu mugatzen Kontseilu Errektorearen eskumenak; legeak berariaz beste organo sozial batzuen aginpidekotzat gorde gabeko guztian, eskumena izan ahalko du.

39. artikulua. Osaera, kideen hautaketa, kargu-uzteak eta bete gabeko postuak

1. Kontseilu Errektoreak gutxienez bost eta gehienez hamar kide izango ditu, eta horietako hiru lehendakaria, lehendakariordea eta idazkaria izango dira.

2. Kontseilu Errektoreko kideak Batzar Orokorrak hautatuko ditu, isilpeko bozketa bidez. Baliozko boto gehien biltzen dituztenak izango dira.

Euskadiko Kooperatiben Legean ezarritakoa betez, Kontseilu Errektoreko bazkideen ordezkariak Batzar Nagusiko ehunekoak mantenduz egingo da. Edozein dela ere kide kopurua, kideen erdiak gehi bat izango dira kontsumitzaileen ordezkariak, eta handik aurrera, ondorengo hurrenkeran beteko dira postuak: lan-bazkidea, bazkide laguntzailea, zerbitzua ematen duen bazkidea eta boto-eskubidea duen sozietate-zatien titularrak. Lan-bazkiderik, bazkide laguntzailerik, zerbitzua ematen duten bazkiderik edota boto-eskubidea duten sozietate-zatien titular diren bazkiderik ez badago, postu horiek bazkide kontsumitzaileek beteko dituzte.

Kontseilukideak bazkideen artetik hautatuko dituzte, estatutu hauetako 8. artikuluan zehaztuta dauden eta aipatu diren modalitateak kontuan hartuz, isilpeko bozketa partzialen bidez, kideak hautatzeko Batzar Orokorrera joandako bazkideek eta behar bezala ordezkariak. Kontseilukideak lau urterako hautatuko dira, baina berriro hautatuak izan ahalko dira beste horrenbeste urtetarako, eta osieran emakumezkoen eta gizonezkoen kopuruak orekatua izateko ahalegina egin beharko da. Lau urteak igaro ondoren, Kontseilu Errektoreko kideek behin-behinean beren karguan jarraituko dute, hurrengo Batzar Orokorra egin arte.

Kide horiek izendatzearekin batera, 2 ordezkari hautatuko dira; horietako 1 bazkide kontsumitzailea izango da eta bestea gainontzeko bazkide moten ordezkaria izango da: lan-bazkidea, zerbitzua ematen duen bazkidea, bazkide laguntzailea, boto-eskubidea duen sozietate-zatien titular den bazkidea eta bazkide ez-aktiboa. Bazkide kontsumitzailea ez beste bazkiderik ez badago, ordezkariak 2 izango dira, denak bazkide kontsumitzaileak.

Kontseilu Errektoreak partzialki berrituko ditu kideak bi urtean behin, erdi eta erdi: lehen berritzean 2 kide titular (lehendakariorde eta ordezkariak) eta ordezkari bat hautatuko dira, eta

hurrengoan gainerakoak (lehendakaria, idazkaria eta beste ordezkariak). Berritzea borondatez eta proportzioan egingo da. Kontseilu Errektorearen osakeraren arabera, administrazio-organo horretako bazkide motak kontuan hartuz eta estatutu sozial hauetan bazkide mota bakoitzarentzat ezarrita dauden mugak errespetatuz.

Kooperatibaren barne-araudian zehaztuko dira Kontseilu Errektorea hautatzeko arauen xehetasunak; besteak beste, eta nahitaez, hautagaiak nor diren jakinarazteko prozedura.

3. Kontseilu eratu berriak, lehenengo bileran, lehendakaria, lehendakariordea eta idazkaria hautatuko ditu, eta gainerako kideak batzordekideak izango dira.

4. Kontseilu Errektoreko titular baten postua hutsik geratzen bada, lehen ordezkoa berehala hasiko da haren kargua betetzen, eta horretan jardungo du harik eta ordezkatuari estatutu hauen arabera gelditzen zaion denbora igaro arte.

Hutsik geratu den postua artikuluko honetako 3. zenbakian aipatutako kargu bat bada, Kontseilu Errektoreko kideen artetik hautatuko dute, kontseilukideek, nork beteko duen postua, aurretik ordezkotza izendatuta zeudenak kontseiluan sartu eta gero. Kargua hutsik aldi baterako geratzen bada, lehendakariordeak ordezkatu du lehendakaria, eta hark beteko ditu lehendakariak delegatutako zereginak. Falta dena idazkaria bada, une horretan gazteena den kontseilukideak beteko du haren tokia.

Kontseilukideen dimisioak edo kargu-uzteak Kontseilu Errektoreak onartu ahalko ditu, arrazoi justifikatua badute; dimisiorako edo kargua uzteko eskaera Batzar Orokorraren aurrean egiten bada, ordea, batzarrak ebatzi beharko du eskaera, baita gai-zerrendan ageri ez bada ere.

5. Ezingo dira Kontseilu Errektoreko kide izan:

- a) Konkurtso Legearen arabera gaitasunik gabe utzi direnak, konkurtsoaren kalifikazio-epaian ezarritako gaitasun gabeko aldia amaitu arte; adingabekoak eta gaitasunik gabe utzitakoak; kargu publikoak betetzeko gaitasun gabe uzteko moduko zigorrak dituztenak; legeak edo xedapen sozialak larriki urratzeagatik zigortutakoak; eta duten kargua dela-eta irabazi asmoko jarduera ekonomikoetan parte har ez dezaketenak.
- b) Administrazioarentzat diharduten funtzionarioak eta langileak, beren egitekoek zerikusirik baldin badute kooperatibaren beraren jarduerekin.
- c) Beren edo besteren kontura arituz, kooperatibarekin lehian dauden jarduerak burutzen dituztenak, edota nolana ere kooperatibaren aurkako interesak dituztenak.
- d) Zaintza Batzordeko kideak, Errekurtsoen Batzordekoak, eta zuzendari- eta gerente-kargua betetzen dutenak.
- e) Bazkide eszedentziadunak, eszedentziak dirauen bitartean.

6. Batzar Orokorak erabaki ahalko du Kontseilu Errektoreko kideak kargugabetzea, nahiz eta gai-zerrendan ez agertu. Hala bada, kargugabetzea erabakitzeke, ezinbestekoa izango da batzarrean bertaratutakoen eta ordezkaturakoen botoen bi hereneko gehiengo kalifikatua alde agertzea.

Kontseilukideren bat kargugabetzen denean, Batzar Orokor horretan bertan hautatuko da kontseilukide berria, nahiz eta gai-zerrendan ez agertu.

7. Kontseilu Errektoreko kideren batek edozein arrazoiengatik kargua uzteak erabakia Kooperatiben Erregistroan inskribatzen den egunetik aurrera izango ditu ondorioak hirugarrenen aurrean.

40. artikulua. Funtzionamendua

1. Kontseilu Errektorea biltzeko deia lehendakariak egingo du, eta, bilera baliozkoa izateko, ezinbestekoa izango da bilerara kideen erdiak baino gehiago joatea. Kontseilukideek berek

joan beharko dute bilerara, ezingo dute ordezkariarik bidali, eta, erabakiak hartzeko, bertaratutako botoen erdiak baino gehiago beharko da. Kontseilu Errektoreko kideek boto bana izango dute. Berdinketa kasuetan, lehendakariaren botoa izango da erabakigarria. Bilera Kooperatiben Legeak aurreikusitako edozein modutan egin ahal izango da.

2. Kontseilu Errektoreak bilerara bertaratu direnen gutxienez bi herenek aldeko botoa ematea beharko du erabaki hauek hartzeko:

- a) Jarduera-zentro nagusi bat edo haren zati handi bat ixtea edo lekuz aldatzea.
- b) Kooperatibaren jarduera nabarmen aldatzea, murriztea edo hedatzea.
- c) Kooperatibaren antolaketan garrantzizko aldaketak egitea.
- d) Kooperatibarentzat balio handiko lankidetzak harreman iraunkorrak diren edo izan daitezkeen loturak desagitea edo sortzea beste entitate batzuekin, kooperatibak izan zein ez.

3. Bileraren aktak, lehendakariak eta idazkariak sinatua, hauek guztiak jaso beharko ditu: eztabaidak, laburtuta; hartutako erabakien testua; eta bozketen emaitzak.

4. Kontseilu Errektoreak bere baitan batzorde betearazle bat osatu ahalko du, edo kontseilukide ordezkari izateko pertsona bat edo batzuk izendatu. Horretarako, kideen bi herenek aldeko botoa eman beharko dute, eta erabakia notario aurrean formalizatu beharko da, baina ez du ondorioz izango Kooperatiben Erregistroan inskribatu arte.

Inola ere ezingo dira delegatu Batzar Orokorrean kontuak ematea eta balantzeak aurkeztea.

41. artikulua. Kontseilu Errektoreko kideen erantzukizunak

1. Kontseilu Errektoreko kideek ez dute berriazko ordainsaririk jasoko kargu horretan aritzeagatik, doako karguak baitira guztiak. Edonola ere, zeregin horrek sortzen dizkien gastuak ordainduko zaizkie.

2. Kontseilu Errektoreko kideek behar den zorroztasunez eta arduraz beteko dituzte beren karguak, eta beren gain hartuko dituzte legearen edo estatutu hauen aurka edo behar besteko arretarik gabe jarduteagatik eragindako kalteak. Datu konfidentzialak isilpean gorde beharko dituzte, baita beren funtzioak utzi eta gero ere.

Egintza kaltegarria egin edo erabaki kaltegarria hartu duten kontseilukide guztiak erantzule solidarioak izango dira, baita hartan parte hartu ez arren egintzaren edo erabakiaren berri jakindakoan berriaz aurka agertu ez direnak ere.

3. Kontseilu Errektoreko kideak arduratuko dira kooperatibak kooperatibaren delituen aurreko eredu bat egiteko duen betebeharra betetzeaz, bai eta eredu horren jarraipena egiteko mekanismoak ezartzeaz ere. Era berean, kooperatibaren betebeharra betetzeaz arduratuko dira, kooperatiba indarkeria sexistarik gabeko eremua izan dadin.

42. artikulua. Erantzukizun-akzioa

1. Kooperatibak Kontseilu Errektoreko kideen aurkako erantzukizun-akzio soziala egikaritu ahalko du, aurretik gehiengo arruntez Batzar Orokorrak hala erabakita, nahiz eta gairerrendan ez agertu. Batzar Orokorrak edozein unetan erabaki ahalko du akzioa egikaritzeari uko egitea edo onartzea. Erantzukizun-akzioa sustatzea erabakitzen bada, tarteko diren Kontseilu Errektoreko kideak automatikoki kargutik kanpo geratuko dira.

2. Erabakia hartu eta 3 hilabeteko epean kooperatibak erantzukizun-akzioa hasten ez badu, edozein bazkidek egin ahalko du.

3. Erantzukizun-akzioa 2 urteren buruan iraungiko da, erantzukizun hori sortu duten egintzak gertatu direnetik eta horien berri jakindako egunetik zenbatzen hasita.

4. Aurreko zenbakietan ezarritakoak hala izanik ere, horietatik kanpo geratzen dira bazkideek eta hirugarrenek indibidualki egin ditzaketen akzioak, Kontseilu Errektoreko kideen jardunaren ondorioz zuzenean beren interesei kalte egin bazaie.

43. artikulua. Erabakiak inpugnatzea

1. Kontseilu Errektoreak hartutako erabakiak inpugnatu ahalko dira, legearen edo estatutu hauen aurkakoak badira, edo kooperatibaren interesen kalterako eta bazkide baten edo gehiagoren edo hirugarrenen mesederako badira.

Erabaki bat ezingo da inpugnatu, hura ondorioz gabe utzi bada edo baliozkoa den moduren batean beste erabaki batez ordeztu bada.

2. Inpugnatzeko akzioetarako legitimazioa dute hauek:

- a) Bazkide guztiek, erabakiaren berri izan eta 60 eguneko epean, betiere erabakia hartu zenetik urtebete igaro ez bada.
- b) Kontseilu Errektoreko kideek, erabakia hartu zenetik 60 eguneko epean.
- c) Zaintza Batzordeak, b letrako epe berean.

3. Inpugnazioak izango dituen ondorioak eta inpugnazioa tramitatzeko modua Batzar Orokorraren erabakiak inpugnatzeari buruz adierazitakoen berberak izango dira.

HIRUGARREN ATALA

Zaintza Batzordeari buruzkoa

44. artikulua. Osaera, agintaldia eta izendapena

Zaintza Batzordea kooperatibak nahi duenean sortuko da, edo nahitaez, kooperatiba osatzen duten pertsonen kopurua **100** pertsonakoa denean, kopuru hori gainditu eta hurrengo batzar orokorrean.

1. Zaintza Batzordeak 3 kide titular (2 bazkide kontsumitzaile eta bestea zerbitzu edo bazkide laguntzailea) eta 2 ordezeko (bazkide kontsumitzaile bat eta bestea zerbitzu edo bazkide laguntzailea) izango ditu. Haien agintaldiak ez du bat egingo Kontseilu Errektoreko kideenekin, eta 2 urtekoa izango da, baina berriro hautatuak izan ahalko dira.

Kide horiek bazkideak izango dira, baina bazkide ez direnak ere hautatu ahalko dira, betiere kide guztien erdiak baino gehiago ez badira eta karguan jarduteko baldintza egokiak betetzen badituzte.

2. Kide titularrak eta ordezekoak Batzar Orokorrak hautatuko eta kenduko ditu, isilpeko bozketa bidez. Kooperatibak berrogeita hamar soldatapeko baino gehiago baditu, Zaintza Batzordean ordezkatzeko dituen bat aukeratuko dute horiek, kontratu mugagabea dutenen artetik.

Titularren batek bere postua behin betiko uzten badu bakarrik hartuko du ordezeko batek haren tokia.

3. Zaintza Batzordeko kideek estatutu hauetan eta legez Kontseilu Errektoreko kideentzat ezarrita dauden arau berberak bete beharko dituzte erantzukizun, ezgaitasun, debeku, ordainsari eta inskripzioari dagokienez.

45. artikulua. Informazio-eskubidea

Kontseilu Errektoreak hiru hilean behin emango dio Zaintza Batzordeari kooperatibaren jardueren eta aurreikustekoa den bilakaeraren berri.

2. Zaintza Batzordeak bere eginkizunak bete ahal izateko komenigarritzat dauzkan egiaztapen guztiak egin ahalko ditu, eta aukera izango du zeregin hori batzordeko kide baten edo gehiagoren esku uzteko edo adituen laguntza eskatzeko, batzordeko inor aditua ez bada.

3. Zaintza Batzordeko kide diren guztiek eskura izango dute jakinarazitako edo jasotako informazio guztia, baina inola ere ezingo dute horrela lortutako informazioa edo ikerketen emaitzak estatutuetan ezarritako bideetatik kanpo ezagutzera eman.

46. artikulua. Eskumenak eta funtzionamendua

1. Zaintza Batzordeak artikuluko honetako 2. zenbakian zehaztutako eskumenak ditu, baina inola ere ezin dezake kooperatibaren kudeaketan zuzenean esku hartu, ez haren ordezkari gisa jardun hirugarrenen aurrean. Edonola ere, kooperatibaren ordezkari gisa jardungo du Kontseilu Errektorearen edo kontseiluko edozein kideren aurrean, organo horren aurkako inpugnazio judizialik badago edo kide horien kontratua amaitzen bada.

2. Zaintza Batzordearen eskumenekoak dira:

- a) Urteko kontuak ikuskatzea, eta nahitaezko txosten bat egitea haiei buruz eta soberakinak banatzeko edo galerak egozteko proposamenari buruz, Batzar Orokorrean aurkeztuak izan baino lehen, baldin eta kooperatiba ez badago behartuta bere finantza-egoerak kontu-auditoretza batek egitera.
- b) Kooperatibaren liburuak aztertzea.
- c) Batzar Orokorrerako deia egitea, Kontseilu Errektore osoak dimisioa ematen badu edo kooperatibaren onerako beharrezkotzat jo arren Kontseilu Errektoreak eskaera aintzat hartzen ez badu, Euskadiko Kooperatiben Legean ezarritakoaren arabera.
- d) Ordezkaritza-idazkiak egoki emanda daudela ikusi eta oniritzia ematea, eta, oro har, Batzarretara joateko eskubideari buruzko zalantzak edo gorabeherak argitzea.
- e) Sozietatearen erabakiak inpugnatzea, legez aurreikusita dauden kasuetan.
- f) Batzar Orokorrari batzarrak berak Zaintza Batzordeari agindutako gaien edo egoeren berri ematea.
- g) Batzar Okorrrak gainerako organoetako kideak hautatzeko eta izendatzeko prozesua zaintzea.
- h) Kontseilu Errektoreko kideren batek ezgaitasun- edo debeku-arazoren bat badu, haren betebeharrak etetea, eta Batzar Orokorra egin bitartean ezinbesteko neurriak hartzea.
- i) Euskadiko Kooperatiben Legeak berariaz egokitzen dizkion gainerakoak.

3. Zaintza Batzordeak isilpeko bozketa bidez kideen artetik bi aukeratuko ditu, bata batzordeburua eta bestea idazkaria izan daitezen, eta bere barne-funtzionamendua arautuko du. Dena den, Kontseilu Errektoreko edo Zaintza Batzordeko edozein kidek eskatu ahalko dio batzordeburuari deialdia egiteko; eskaera idatziz egin beharko du, eta arrazoiak azaldu beharko ditu. Eskaera egin dutenak Kontseilu Errektoreko edo Zaintza Batzordeko kideen gutxienez herenak badira eta hilabeteko epean deialdirik egiten ez bada, bi taldeetako edozeinek egin ahalko du Zaintza Batzorderako deia.

LAUGARREN ATALA

Errekurtsoen Batzordeari buruzkoa

47. artikulua. Osaera, agintaldia eta izendapena

1. Organo honen eskumena da entitateak bere baitan bazkideen arau-hauste larriengatik edo oso larriengatik lehen auzialdian hartutako erabaki zigortzaileak berriro aztertzea, betiere tarteko den pertsonak hala eskatzen duenean.

Diziplinazkoak ez diren erabakiengatik ere errekurtsua jarri ahalko da batzorde honetan, aukera hori ezarri bada Euskadiko Kooperatiben Legean edo estatutu hauetan.

2. Eskubide osoko bazkideak izan ahalko dira organo honetako kide, betiere baldintza hauek betetzen badituzte: gutxienez hiru urteko antzinasuna, kooperatiben arloko esperientzia eta egokitasuna, estatutuetan ezarritakoaren arabera.

3. Errekurtsoen Batzordeak 3 kide titular (2 bazkide kontsumitzaile eta bestea zerbitzu edo bazkide laguntzailea) eta 2 ordezeko (bazkide kontsumitzaile bat eta bestea zerbitzu edo bazkide laguntzailea) izango ditu, eta haien agintaldia 3 urtekoa izango da, baina berriro hautatu ahalko ditu Batzar Orokorrak, isilpeko bozketa bidez, sozietatean kargurik ez duten eta kooperatibako soldatapeko ere ez diren bazkideen artetik.

48. artikulua. Eskumenak eta funtzionamendua

1. Errekurtsu Batzordearen eztabaidak baliozkoak izateko, bileran kideen erdiek baino gehiagok egon beharko dute, eta ezingo da botoa delegatu; erabakiak hartzeko, gehiengoa beharko da.

2. Diziplinarekin zerikusia duten erabakiak hartzeko, bozketa isilpekoa izango da beti, eta ez da egongo kalitatezko botorik.

3. Errekurtsoei buruzko tramitazioak egin eta erabakiak hartzean batzordeko kideek ezingo dute parte hartu, baldin eta errekurtsoan tarteko den bazkidearekiko bigarren mailara arteko odol-ahaidetasuna edo ezkontza-ahaidetasuna badute edota pertsona horrekiko mendekotasuna, adiskidetasun estua edo ageriko etsaitasuna badute.

49. artikulua. Erabakien ondorioak

1. Errekurtsoen Batzordeak hartutako erabakiak, sozietatearen nahiaren adierazpen direnez gero, berehala bete beharko dira eta behin betikoak izango dira. Dena den, inpugnatu ahalko dira, Batzar Orokorrak hartu izan balitu bezala, Kooperatiben Legeak ezarritakoaren arabera.

IV. KAPITULUA ARAUBIDE EKONOMIKOARI BURUZKOA

50. artikulua. Erantzukizuna

1. Bazkideek ez dute sozietatearen zorren erantzukizun pertsonalik izango. Haien erantzukizun bakarra kapital sozialari egindako ekarpenera mugatuko da.

2. Itzuli beharreko ekarpenen zenbatekoa zehaztu ondoren, baja ematen duten bazkideek ez dute inolako erantzukizunik izango baja eman ondoren kooperatibak egin dituen zorreatatik.

51. artikulua. Kapital soziala

Kooperatibaren kapital soziala horrela dago osatuta:

1. Botoa duten sozietatearen parteak, botoa duten alderdi sozialen bazkide titularrek sinatuak. Botoa duten alderdi sozial horien araubidea eta haien titularren eskubideak eta betebeharrak estatutu sozial hauetan daude araututa, eta, osagarri gisa, kapital-sozietateei buruzko legerian akzioetarako xedatutakoan. Dirua itzultzeko edo ez itzultzeko eskubidea ekarpenetarako araubide bera da, hurrengo atalean deskribatua.

2. Bazkide kooperatzaileek **kapital sozialari** egindako ekarpenak, nahitaezkoak nahiz borondatezkoak. Honelakoak izan daitezke:

- a) **Itzultzeko eskubidea** duten ekarpenak, baja emanez gero, Euskadiko Kooperatiben Legean eta hura garatuz araudian ezarritakoaren arabera. **Iraupen jakin bateko bazkideek** egindako ekarpenak bakarrik izango dira horrelakoak.
- b) Kontseilu Errektoreak baldintzarik gabe ukatuz gero, **itzultzeko eskubiderik ez duten ekarpenak**, Euskadiko Kooperatiben Legean eta hura garatuz araudian ezarritakoaren arabera.

Bazkideak baja emanez gero itzultzeko eskubidea duten ekarpenak itzultzeko eskubiderik ez duten ekarpen bihurtzeko, bai eta alderantzizko bihurketa egiteko ere, ezinbestekoa izango da estatutuak aldatzeko adostasuna izatea. Bazkideren bat ados ez badago, baja eman ahalko du, eta baja justifikatutzat hartuko da.

Estatutu hauek Kapital Sozialeko ekarpen edo ekarpenei buruz egiten duten edozein aipamen, besterik adierazi gabe, botoa duten alderdi sozialez besteko kapital sozialera egindako ekarpenei dagokiela ulertu beharko da.

3. Gutxieneko kapital soziala 3.000 € izango da.

4. Kapital sozialari egindako ekarpenen egiaztagiri gisa, titulu izendunak erabiliko dira, baina ez dira balore-titulutzat hartuko; edo, bestela, partaidetza-libreta edo -liburuxka izendunak erabiliko dira, eta horietan, bazkide bakoitzak egindako ekarpen edo eguneraketa guztiak adieraziko dira, bai eta bazkide bakoitzari egotzitako galerengatik egindako kenkariak ere.

5. Ekarpinak dirutan egingo dira, baina ondasunetan eta eskubidetan ere egin ahalko dira; horrelakoetan, Kontseilu Errektoreak zehaztuko du zer balio duten horiek, aurretik horretarako izendatutako aditu independente batek egindako txostena kontuan izanda.

6. Ezein bazkideek ezingo du egin kapital sozialaren herena baino ekarpen handiagorik, bazkide kooperatzaileek izan ezik.

52. artikulua. Bazkide kooperatzaileen nahitaezko ekarpenak eta boto-eskubidea duten bazkide ez-kooperatzaileen sozietate-zatiak.

1. Bazkide kooperatzaileen nahitaezko ekarpenak.

Hasieran egin beharreko nahitaezko ekarpena bazkide motaren araberakoa da:

- Bazkide kontsumitzaileak: hoge euro (20 €).
- Iraupen mugagabeko lan-bazkideak: ehun euro (100 €).
- Iraupen mugatuko lan-bazkideak: ehun euro (100 €).
- Pertsona fisikoak diren bazkide laguntzaileak: ehun euro (100 €).
- Pertsona juridikoak diren irabazi asmorik gabeko bazkide laguntzaileak: ehun (100 €).
- Administrazio publikoko bazkide laguntzaileak: mila euro (1.000 €).

- Pertsona juridikoak izanda, irabazi asmorik gabekoak ez diren bazkide laguntzaileek: mila euro (1.000 €).
- Bazkide ez-aktiboek eta eszedentziadunek: ehun euro (100 €).
- Zerbitzua ematen duten bazkideek: ehun euro (100 €).

2. Boto-eskubidea duten bazkide ez-kooperatzaileen sozietate-zatiak.

Bazkide ez-kooperatzaileek izaera hori hartzen dute alde sozialeko lehen unitatea botoarekin eskuratzean, eta izaera horri eusten diote gutxienez unitate baten titularrak diren bitartean. Unitate horren balioa hau da:

- Boto-eskubidea duen sozietate-zatiaren unitateko balioa: ehun euro (100 €).

3. Bazkide kooperatzaileen nahitaezko ekarpenen eta boto-eskubidea duten bazkide ez-kooperatzaileen sozietate-zatien ezaugarriak.

- a) Bazkide bakoitzak kapital sozialari egin beharreko gutxieneko nahitaezko ekarpen gisa, une bakoitzean indarrean dagoen hasierako nahitaezko ekarpenaren ehuneko hogeita bost ezartzen da bazkide-mota bakoitzerako, artikuluko honen 1. paragrafoan ezarritakoaren arabera.
- b) Bazkide izateko hasierako nahitaezko ekarpena eta hasierako botoa duen parte soziala oso-osorik ordainduko dira harpidetza egiten den unean.
- c) Batzar Orokorrak urtero finkatuko du hasierako nahitaezko ekarpenaren zenbatekoa. Nahitaezko ekarpen berriak egiteko eskakizuna ere finkatuko du, zenbatekoa eta ordaintzeko epeak eta baldintzak zehaztuz. Bazkidea ez badago ados kapitala nahitaez gehitzearekin, baja ematen ahalko du, eta baja hori justifikatutzat joko da.
- d) Aurrez egindako borondatezko ekarpenak erabili ahal izango dira nahitaezko ekarpen berriak ordaintzeko.

53. artikulua. Borondatezko ekarpenak eta boto-eskubidea duten sozietate-zatien ekarpen berriak

1. Batzar Orokorrak erabaki ahalko du bazkideek kapital sozialari borondatezko ekarpenak egiteko aukera onartzea, baita boto-eskubidea duten sozietate-zatien ekarpen berriak ere, eta horretarako baldintzak finkatu beharko ditu.

2. Kontseilu Errektoreak edonoiz onar ditzake bazkideek kapital sozialari borondatezko ekarpenak egitea, baita bazkideen boto-eskubidea duten sozietate-zatien ekarpen berriak jasotzea ere. Dena den, ezartzen duen zenbatekoa ezingo da izan Batzar Orokorrak borondatezko ekarpenei buruz erabakitako azken zenbatekoa baino handiagoa, edo, halakorik ezarrita ez badago, bazkide bakoitzari dagokion nahitaezko ekarpenak baino handiagoa.

54. artikulua. Ekarpenen interesak

1. Batzar Orokorrak finkatu ahalko du bazkideek kapital sozialari egindako ekarpenek zer interes sortuko duten. Interes hori ezingo da izan diruaren legezko interesa baino handiagoa.

2. Bazkide laguntzaileen, bazkide ez-aktiboaren eta zerbitzuak ematen dituzten bazkideen ekarpenek, izan nahitaezkoak edo izan borondatezkoak, ez dute interesik jasoko.

3. Lan-bazkideen ekarpenek, izan nahitaezkoak edo izan borondatezkoak, eta bazkide kontsumitzaileen ekarpenek eskubidea izango dute Batzar Orokorrak finkatutako interesa jasotzeko; dena den, interes hori inola ere ez da izango handiagoa diruaren legezko interesa baino, eta betiere kontuan hartu beharrekoa izango da artikuluko honetako hurrengo zenbakian ezarritakoa.

4. Boto-eskubidea duten sozietate-zatien titular diren bazkideek eskubidea izango dute Batzar Orokorrak kapital-sozial unitatearen gainean finkatutako interesa jasotzeko. Dena den, interes hori ezingo da izan diruaren legezko interesa baino handiagoa, eta hori guztia, artikulua honen hurrengo atalean xedatutakoa errespetatuta.

5. Kapital sozialari egindako ekarpenek ez dute interesik sortuko galerak izan diren ekitaldietan, erabiltzeko moduan dauden erreserbetan interes horiek osoki edo partzialki ordaintzeko bezainbeste ez badago.

55. artikulua. Ekarpenera eguneratzea

1. Kooperatibaren balantzea zuzenbide komuneko sozietateentzat ezarrita dauden baldintza beretan eta mozkin berekin erregularizatu ahalko da.

2. Balantzea erregularizatzearen ondoriozko gainbalioa kapitala eguneratzeko edo nahitaezko nahiz borondatezko erreserbak handitzeko erabiliko da, ekitaldi batean edo gehiagotan, kooperatibak egoki deritzon proportzioan. Nolanahi ere, kooperatibak konpentsatu gabeko galerak baldin baditu, erregularizatzearen ondoriozko gainbalioa galera horiek konpentsatzeko erabiliko da lehenbizi, eta gainerakoa, lehen aipatutako helburuetarako.

56. artikulua. Ekarpenera eskualdatzea

1. Ekarpenera eskualdatu ahalko dira, bai inter vivos egintza moduan, bai mortis causa oinordetza moduan.

Titularrek baja eman ostean kooperatibak uko eginez itzuli gabeko ekarpenik baldin badago, bazkide berriek baja eman duten bazkideei ekarpenak erosiz egin beharko dute hasierako nahitaezko ekarpena.

Eskualdatze horiek egiteko, itzulketa-eskaeren antzintasuna hartuko da kontuan, eta data bereko eskaerak baldin badaude, ekarpenen zenbatekoarekiko proportzioan banatuko da.

2. Inter vivos egintza moduan, bazkideen artean (eta bazkideztat hartuko dira hurrengo hiru hilabeteetan bazkide izateko konpromisoa hartzen dutenak ere), arau hauek izango ditu eskualdatzeak:

- Bazkide izateko konpromisoa hartzen duenari eskualdatzeko, haren bazkideztat onartu beharko da.
- Eskualdatu behar duen bazkidearen ekarpena ezingo da izan txikiagoa unean-unean indarrean dagoen hasierako nahitaezko ekarpenaren zenbatekoa baino.
- Eskualdatzen den ekarpena erabili ahalko du, hartzaileak, hasierako nahitaezko ekarpena eta sarrera-kuota kitatzeko.
- Erabakitako eskualdatze oro Kontseilu Errektoreari jakinarazi beharko zaio, hark onespena eman, kontrol bat izan eta erregistra dezan.

3. Mortis causa oinordetza moduan, eskualdatu ahalko dira kausadunei, bazkideak badira eta hala eskatzen badute, edo, bazkide ez badira, aurretik bazkide gisa onartuta, oinordekoak hala eskatzen duenean, heriotzatik 3 hilabeteko epean.

57. artikulua. Ekarpenak itzultzea

1. Bazkide-izaera galtzen den kasu guztietan, bazkide izandakoek edo haren eskubidedunek eskubidea izango dute hasierako nahitaezko ekarpena itzul diezaietela eskatzeko, baja gertatu

zen egunean ekarpenek zuten balioan eta lege-xedapenetan ezarritako baldintzetan. Kontseilu Errektoreak baldintzarik gabe uka dezake ekarpenak itzultzeko edozein eskaera.

Ekarpenak itzultzeko sistemak arau hauek izango ditu:

- a) Kontseilu Errektoreak itzulketa-eskaera onartzea erabakitzen badu, erabakia hartzen denetik bost urte igaro baino lehen itzuli beharko da ekarpena, edo urtebete baino lehen, bazkidea hiltzen bada. Kontseilu Errektorearen eskumena izango da hori erabakitzea.
- b) Kontseilu Errektoreak onartutako itzulketak eskaeren antzintasuna kontuan hartuz egin behar dira. Sozietate-ekarpenak itzultzeko gainerako baldintzen xehetasunak erabakitzea ere Kontseilu Errektorearen eskumena izango da.
- c) Kooperatibak itzultzea onartutako ekarpenetan, itzuli gabe dauden kopuruak ezingo dira eguneratu, baina eskubidea izango dute interesak jasotzeko (betiere ekitaldi ekonomiko bakoitzaren hasieran indarrean dagoen diruaren legezko interesa).
- d) Kontseilu Errektoreak itzulketa-eskaerari uko egitea erabakitzen badu, une horretatik aurrera eta itzultzea ukatu den ekarpenen bat dagoen bitartean, erabaki hauek hartu beharko dituzte kooperatibako organo sozialek, 2 hilabete igaro baino lehen:
 - Bazkideek kapitalari egindako ekarpenen ordainketa gisa, % 0eko interes-tipoa ezartzea.
 - Soberakin guztiak Nahitaezko Erreserba Funtsera eta/edo Borondatezko Erreserba Banaezinetara bideratzea, Nahitaezko Funtsera bideratu beharreko zenbatekoak kenduta.

Itzuli beharreko ekarpenen zenbatekoa ebaluatzeko, baja gertatu den ekitaldiaren itxierako balantzea hartuko da oinarritzat, eta baja gertatu den eguneko dataren arabera kalkulatu da.

2. Batzar Orokorrak erabaki ahalko du bazkideen kapital soziala komeni den bezainbeste murriztea, baina kooperatiban bazkide mota bakoitzarentzat unean-unean indarrean dauden nahitaezko gutxienerako ekarpenak edota boto eskubidea duten sozietate-zatien unitate bat mantendu beharko dituzte bazkideek. Erabaki hori hartzen badu, Batzar Orokorrak zehaztu egin beharko du zer zenbateko itzuli behar zaion bazkide bakoitzari eta zer epetan.

3. Baja justifikatua denean, 18. eta 19. artikuluetan ezarrita dagoen moduan edo heriotzagatik, ekarpenei ez zaie kenkaririk aplikatuko.

Gainerako kasuetan, Kontseilu Errektoreak kenkari hauek aplikatzea erabaki ahalko du:

- % 30erainokoa, bazkidea kanporatua izan bada.
- % 20rainokoa, borondatezko zein nahitaezko baja ez-justifikatua bada, bazkidearen nahitaezko ekarpenaren likidazio-zenbatekoaren gainean; ezingo zaie kenkaririk aplikatu borondatezko ekarpenei, ezta erretornu kooperatiboen bidez kapitalizatutakoei ere.

58. artikulua. Partaidetza bereziak

1. Partaidetza berezitzat hartzen dira Euskadiko Kooperatiben Legean ezarritakoaren araberrako mendeko finantzaketak; araudi horretan ezarrita dagoenez, partaidetza bereziak ezin izango dira itzuli jaulkitzen direnetik edo kontratatzen direnetik gutxienez bost urte igaro arte, eta haien ordainsaria kooperatibaren emaitzen arabera finkatuko da.

2. Batzar Orokorraren eskumena da partaidetza bereziak onartzea, eta zehaztaperen hauek finkatu beharko ditu erabakian:

- a) Zenbat eta zer baldintzatan kontratatuko edo jaulkiko diren, betiere kontuan hartuz ezingo dietela eman eskubidea ez Batzar Orokorrean bozkatzeko ez Kontseilu Errektorean parte hartzeko.
- b) Zenbat eskainiko zaien bazkideei eta soldatapeko langileei, hirugarrenei eskaini baino lehen, kontuan izanda kopurua ezingo dela izan txikiagoa guztizkoaren % 50 baino.

59. artikulua. Sarrera-kuotak

1. Batzar Orokorrak erabaki ahalko du zenbat izango den bazkide berrien sarrera-kuota, eta kuota hori hasierako nahitaezko ekarpenarekin batera ordaindu beharko da.
2. Sarrera-kuota ezingo da izan handiagoa bazkide mota bakoitzarentzat unean-unean indarrean dagoen hasierako nahitaezko ekarpenaren % 25 baino.
3. Sarrera-kuotak ezingo dira itzuli, eta Nahitaezko Erreserba Funtsera bideratu behar dira, inola ere ez kapital sozialera.

60. artikulua. Aldizkako kuotak

1. Batzar Orokorrak erabaki ahalko du aldizkako kuotak ezartzea, eta kuota horien zenbatekoa eta maiztasuna zehaztu beharko ditu. Hauek guztiak Barne Araudian garatuko dira.
2. Aldizkako kuotak sarrera gisa egotziko dira sortu diren ekitaldi ekonomikoko emaitza-kontuetan.
3. Aldizkako kuotak ez dira itzulgarriak, eta ez dira kapital sozialean sartuko; kooperatibaren Erreserba Funtsetarako erabiliko dira.

61. artikulua. Beste finantzabide batzuk

Kooperatibak aukera izango du, aurretik behar diren erabakiak onartu ostean, Euskadiko Kooperatiben Legean ezarrita dauden finantzabideetatik edozein erabiltzeko.

62. artikulua. Soberakin garbiak

Soberakin garbiak kalkulatzeko, merkataritza-sozietateentzat ezarritako arau eta irizpideak aplikatuko dira.

Partida kengarritzat hartuko dira:

- a) Kooperatibaren kudeaketarako eman diren ondasunen zenbatekoa (kontuan izanda haien balioak ezingo duela gainditu merkatuko prezioa), eta lan-bazkideen lan-aurrerakinen zenbatekoa.
- b) Hauek sortutako interesak: kapital sozialari egindako ekarpenak, partaidetza bereziak, eta kapital sozialean sartu gabeko prestazioak edo bestelako finantzabideak.
- c) Legez baimendutako amortizazioak.
- d) Kooperatibaren funtzionamendurako beharrezkoak diren gastuak.
- e) Indarrean dauden kontabilitate-arauetan horretarako baimenduta dagoen beste edozein kengarri.

63. artikulua. Soberakin erabilgarriak banatzea

1. Soberakin garbiei aurreko ekitaldietako galerak konpentsatzera bideratu beharreko zenbatekoak eta eska daitezkeen zergak kendu ostean geratzen diren soberakinak izango dira soberakin erabilgarriak.

2. Batzar Orokorrak banatuko ditu soberakin erabilgarriak, arau hauen arabera:

- a) Ehuneko hogeita hamar, gutxienez, Nahitaezko Erreserba Funtsera eta heziketarako nahiz kooperatiba-sustapenerako eta interes publikoko beste helburu batzuetarako ekarpenera bideratuko da. Ehuneko hori, gainera, honela banatuko da: ehuneko hamar, gutxienez, heziketarako nahiz kooperatiba-sustapenerako eta interes publikoko beste helburu batzuetarako ekarpenera bideratuko da, eta ehuneko hogeita hamar, Nahitaezko Erreserba Funtsera.

Nahitaezko Erreserba Funtsa kapital sozialaren ehuneko berrogeita hamar izatera iritsi bitartean, hezkuntzarako nahiz kooperatiba-sustapenerako eta interes publikoko beste helburu batzuetarako ezarrita dagoen gutxieneko zuzkidura erdira murriztu ahalko da.

- b) Gainerakoa, Batzar Orokorrak erabakitako ehunekoetan, hauetara bideratuko da: borondatezko erreserba-funts banaezinetarako zuzkidura, Nahitaezko Erreserba Funtserako zuzkidura osagarria, eta, hala badagokio, hezkuntzarako nahiz kooperatiba-sustapenerako eta interes publikoko beste helburu batzuetarako ekarpenerako zuzkidura osagarria.

64. artikulua. Nahitaezko funtsak

1. Nahitaezko Erreserba Funtsa kooperatiba sendotu, garatu eta bermatzeko izango da, eta ezin da banatu bazkideen artean.

Aurreko artikuluan adierazitako zuzkidurez gain, funts honetara bideratu beharko dira, ezinbestean, baja-kasuetan ekarpenei egindako kenkariak eta sarrera-kuotak.

2. Hezkuntzarako nahiz kooperatiba-sustapenerako eta interes publikoko beste helburu batzuetarako ekarpena (beste partida batzuetatik bereiz kontabilizatuko da balantzearen pasiboan) Euskadiko Kooperatiben Legean aurreikusitako helbururen bat betetzen duten jardueretara bideratuko da, betiere Batzar Orokorrak finkatutako oinarrizko ildoak aplikatuz.

Nahitaezko ekarpen hori bideratu ahalko da, betiere aurreko zenbakian adierazitako helburuetarako, diru-ekarpenak eginez irabazi asmorik gabeko entitateei edo kooperatibek elkarri laguntzeko entitateei, Euskadiko Kooperatiben Legean aipatzen den bezala.

Bitartekaritza-entitate horiei diru-ekarpenak egiteko, beharrezkoa izango da adierazitako interes publikoko helburuetarako erabiltzea ekarpen horiek, bai bitartekaritza-entitateak berak, bere jardueren bidez, edo bai beste pertsona fisiko edo juridiko batzuek, entitate horrek jasotako baliabideak haiei bideratzen badizkie.

Aurreko artikuluan adierazitako zuzkidurez gain, nahitaezko ekarpen honetara bideratu beharko dira, ezinbestean, bazkideei jarritako zigor ekonomikoen zenbatekoak.

Kooperatibak adierazitako interes publikoko helburuetara bideratu gabe nahitaezko ekarpenik geratzen bada, kopuru hori irabazi asmorik gabeko entitateei entregatu beharko zaie, soberakinaren banaketa onartu den ekitaldian ez hurrengoan, indarrean dagoen kooperatiben legedian nahitaezko ekarpen horretarako ezarrita dauden interes publikoko helburuetarako erabil dadin.

65. artikulua. Borondatezko funtsak

Batzar Orokorrak hala onartzen badu, kooperatibak komenigarritzat dauzkan nahi adina Borondatezko Erreserba Funts eratu ahalko ditu, denak ere banaezinak.

66. artikulua. Galerak egoztea

1. Batzar Orokorrak erabakiko du nola egotzi galerak, arau hauei jarraituz:

- a) Estatutu hauetan adierazitakoaren arabera, balantzea erregularizatzeko funtsari egotziko zaio, hala badagokio, ahal den zenbatekoa.
- b) Borondatezko Erreserba Funtsik badago, galera guztiak haiei egotziko zaizkie.
- c) Nahitaezko Erreserba Funtsari egotzi ahalko zaio, gehienez ere, soberakin positiboak izan diren azken 5 urteetan nahitaezko funtsetara bideratutakoaren batez besteko ehunekoak. Edonola ere, Nahitaezko Erreserba Funtsa handiagoa bada kooperatibaren kapital sozialaren ehuneko berrogeita hamar baino, ehuneko horretatik gorako zenbatekoa erabili ahalko da galerak konpentsatzeko ere.
- d) Aurreko a, b eta c letren arabera konpentsatu ez den zenbatekoa bazkide kontsumitzaileei eta lan-bazkideei egotziko zaie, ekitaldi ekonomiko bakoitzaren itxierako eragiketa-bolumenarekiko proportzioan. Boto-eskubidea duten sozietatezation titular diren bazkide ez kooperatzaileei jarritako kapitalaren araberrako banaketa egingo zaie, guztizko kapital sozialaren gainean dagokien zatiarekiko proportzioan.
- e) Dena dela, bazkide kontsumitzaileei eta lan-bazkideei honela egotziko zaie dagokien galera zatia:
 - Bazkide kontsumitzaileei, urteko kontsumoen arabera, edota Barne Araudian definitutako irizpide osagarri edo alternatiboen arabera.
 - Lan-bazkideei, urteko lan-aurrerakin gordinen baturaren arabera, kontuan izanda inola ere ezingo zaiela egotzi urtean jaso duten lan-aurrerakin gordinen % 10 baino urteko galera gehiago. Muga horretara iritsiz gero, gainerako galerak bazkide kontsumitzaileei egotziko zaizkie.

Bazkide bakoitzari egotzitako galerak zuzenean kitatuko dira, edota kapitalari egin dizkieten ekarpenetatik kenduta, onartu diren ekitaldiaren barruan.

2. Aurreko 1. zenbakian adierazitakoak bete beharrekoak izanagatik ere, Batzar Orokorrak erabaki ahalko du ekitaldi bateko galerak osorik edo partzialki banan-banako esleipenik gabeko kontu berezi bati egozte, etorkizuneko emaitza positiboen eta balantze-erregularizazioen kontura amortizatzeko, gehienez ere 5 urteko epean.

Bost urteak igaro ostean oraindik konpentsatu gabeko kopururik geratzen bada, aldea une horretan dauden bazkide guztien artean banatuko da, azken urteko jarduera kooperatibizatuarekiko proportzioan, aurreko 1. zenbakiko d letran ezarritako irizpidearen arabera; eta azken kasuan, gehienez ere urtebeteko epean kitatu beharko dira.

Epe horretan kooperatiban baja ematen duten bazkideei konpentsatzeko dagoen galera-funtsetik dagokien zatia egotziko zaie.

V. KAPITULUA

DOKUMENTAZIO SOZIALA ETA KONTABILITATEA

67. artikulua. Dokumentazio soziala

1. Kooperatibak behar bezala eta eguneratuta izango ditu liburu hauek:

- a) Bazkideen Erregistro Liburua.
- b) Kapital Sozialari egindako Ekarpenen Erregistro Liburua.
- c) Batzar Orokorraren, Kontseilu Errektorearen, Zaintza Batzordearen eta Errekurtsoen Batzordearen akta-liburuak.
- d) Inbentario eta Balantze Liburua.
- e) Liburu Egunkaria.
- f) Beste lege-xedapen batzuek eskatzen dituzten guztiak.

2. Liburuak eta gainerako kontabilitate-erregistroak koadernatuta egongo dira, folioak zenbakituak izango dituzte, eta, erabili baino lehen, Kooperatiben Erregistroak gaituko ditu.

3. Baliozkoak dira prozedura informatikoen bidez edo bestelako prozedura egokien bidez egindako idazpenak eta idatzoharrak ere; gero, hurrenez hurren koadernatu beharko dira, nahitaezkoak diren liburuak eratzeko, eta Kooperatiben Erregistroak legeztatu beharko ditu, ekitaldia ixten denetik 6 hilabeteko epean.

Artikulu honetako 1. zenbakiko c letran adierazitako liburuak legeztatuta ez dauden bitartean, Kooperatiben Erregistroari akten kopia ziurtatua bidali beharko zaio, onartuak direnetik bi hilabeteko epean.

68. artikulua. Kontabilitatea

1. Kooperatibak kontabilitatea behar bezala eraman behar du, bere jarduerari egokitua merkataritza-legediaren arabera, salbu eta espezifikoki erregulatzen bada kooperatibentzat. Edonola ere, kontabilitateak bete egin behar ditu kooperatibaren araubide ekonomikoaren berezitasunak.

2. Ekitaldia itxitakoan, Kontseilu Errektoreak kooperatibaren urteko kontuak egin beharko ditu, sozietatearen ekitaldia ixten denetik gehienez ere hiru hilabeteko epean, informazio finantzarioaren esparruan bete beharreko legediaren arabera. Urteko kontuetan, hauek jaso beharko dira: balantzea, galera-irabazien kontua, memoria eta, hala badagokio, ondare garbian izandako aldaketen egoera eta efektiboaren fluxuen egoera.

Gainera, Kontseilu Errektoreak kudeaketa-txostena ere jasoko du urteko kontuekin batera, merkataritza-legediari jarraituz, eta, hala badagokio, informazio ez-finantzarioaren egoera ere bai, kudeaketa-txostenaren barruan edo aparteko txosten batean.

69. artikulua. Urteko kontuak gordailutzea

Kontseilu Errektoreak Euskadiko Kooperatiben Erregistroan aurkeztu behar ditu urteko kontuak, onartzen direnetik hilabeteko epean, gordailutzeko; behar izanez gero, kudeaketa-txostena eta kontu-auditoreena ere aurkeztu beharko ditu. Urteko kontu horiek eta kudeaketa-txostenak administratzaile guztiek sinatuta egon behar dute, eta norbaiten sinadura falta bada, espresuki adierazi behar da arrazoia.

70. artikulua. Kontu-auditoretza

1. Kooperatibak urteko kontuen eta kudeaketa-txostenaren kanpo-auditoretza egin beharko du, aginduzkoa denean edo Euskadiko Kooperatiben Legean aurreikusitako kasuren bat gertatzen bada.
2. Auditoreak Batzar Orokorrak izendatuko ditu, edo, bestela, Kontseilu Errektoreak; azken kasu horretan, izendapenaren berri eman beharko du hurrengo Batzar Orokorrean.

71. artikulua. Letradu aholkularia

1. Baldin eta, Kontu Auditoretzari buruzko Legeak xedatutakoak edo haren garapen-arauak betetzeko, kooperatiba behartuta badago urteko kontuen kanpo-auditoretza egitera, letradu aholkulari bat izendatu beharko du, Kontseilu Errektoreak erabakita.
2. Letradu aholkulari horrek Euskadiko Kooperatiben Erregistroan inskriba daitezkeen Batzar Orokorraren edo Kontseilu Errektorearen erabakiak sinatuko ditu, zuzenbidearen arabekoak diren irizpena emanez.

Erabaki horien ziurtagirietan jasota geratuko da letradu aholkulariaren irizpena duten erabaki horiek akta-liburuan daudela.

3. Letradu aholkulariak, zabarkeria profesionalez jokatuz gero, erantzukizun zibila izango du kooperatibaren, hango bazkideen eta hirugarren ez-bazkideen aurrean.

4. Ezin izango dira kooperatibaren letradu aholkulari izan ez zuzendari-gerentea, ez Kontseilu Errektoreko kideak, ez Errekurtsoen Batzordekoak eta ez Zaintza Batzordekoak, eginkizun bateraezinak direnez gero.

5. Kooperatibaren eta letradu aholkulariaren arteko harremana zerbitzuen errentamenduzkoa izan ahalko da (profesional liberal gisa, lan-kontratupekoa), edo sozietate-harremana (lan-bazkide gisa).

VI. KAPITULUA DESEGITEA ETA LIKIDAZIOA

72. artikulua. Desegiteko arrazoiak eta erabakia

1. Arrazoi hauengatik desegin ahalko da kooperatiba:

- a) Estatutuetan zehaztutako helburu soziala argi eta garbi bete ezina.
- b) Bi urtez jarraian, organo sozialak geldirik edo jarduerarik gabe egotea edo kooperatibaren jarduna arrazoi justifikaturik gabe etetea.
- c) Kooperatiba eratzeko legez behar den gutxienezko behera murriztea bazkide kopurua, baldin eta 12 hilabeteetan baino gehiagoan horrela irauten badu.

- d) Estatutu hauetako 51. artikuluko 3. zenbakian ezarritako gutxienezko behera murriztea kapital soziala, baldin eta 12 hilabeteko epean horrela irauten badu.
- e) Kooperatibaren erabateko zatiketa edo bat-egitea.
- f) Konkurtso Legean ezarritakoa betez, kooperatiba konkurtsopean dagoenean, entitatearen likidazio-faseari hasiera ematen dion ebazpen judizialak kooperatibaren desegite-deklarazioa jasotzea.
- g) Batzar Orokorrak kooperatiba desegiteko erabakia hartzea, berariaz horretarako deitutako bileran.
- h) Legeetan ezarritako beste edozein arrazoi.

2. Kooperatiba desegiteko erabakia hartzeko, gehiengo arrunta beharko da, aurreko 1. zenbakiko e eta g letretan jasotako kasuetan izan ezik; horietan, 36. artikuluko 2. zenbakian adierazitako gehiengoa beharko da.

3. Kooperatiba desegiteko edozein arrazoi gertatzen denean, Kontseilu Errektoreak Batzar Orokorrerako deia egin beharko du, bi hilabeteko epean. Zaintza Batzordeak edo edozein bazkidek administratzaileei eskatu ahalko die deialdia egiteko.

Kontseilu Errektoreak, eta interesa duen edonork, kooperatibaren desegite judiziala eskatu ahalko du, kasu hauetakoren bat gertatuz gero:

- a) Batzar Orokorrerako deialdirik ez egitea.
- b) Batzar Orokorra estatutuetan finkatuta dagoen epearen barruan ez biltzea.
- c) Batzar Orokorra bildu arren, kooperatiba desegiteko erabakia hartu ezin izatea.
- d) Batzar Orokorra bildu arren, kooperatiba desegitearen aurkako erabakia hartzea.

4. Kooperatiba desegiteko erabakia, edo desegitea deklaratzeko duen ebazpen judiziala, Kooperatiben Erregistroan inskribatu beharko da, eta, gainera, Euskal Herriko Agintaritzaren

Aldizkarian eta kooperatibak egoitza soziala duen lurralde historikoko zabalkunde handiko egunkari batean argitaratu.

73. artikulua. Likidazioa

Kooperatibaren likidazioa Euskadiko Kooperatiben Legeak eta indarrean dauden gainerako xedapen aplikagarriek ezarritakoaren arabera egingo da.

AZKEN XEDAPENAK

1. ARBITRAJE KOOPERATIBOA

Kooperatibaren eta bazkideen artean sortzen diren auzigaiak edota harreman kooperatibizatuen esparruan kooperatibako bazkideen artean sortzen direnak, baita likidazio-fasean sortutakoak ere, zuzenbidearen arabera partearen arteko xedapen libreko gaiei buruzkoak badira, kooperatibaren barneko bideak agortu ostean nahitaez jarri beharko dira Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluaren zuzenbidezko arbitrajearen mende, Kooperatiben Arbitrajeko Euskal Zerbitzuaren bidez (Bitartu), Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluak euskal kooperatiben gatazka ebazteko prozedurei buruz emana duen araudia betez, eta parteek berariaz hitzeman beharko dute arbitraje horren ondoriozko laudoari men egingo diotela.

2. DELITUAK PREBENITZEKO EREDUA ETA DELITUEN JARRAIPENA EGITEKO MEKANISMOAK

Bat. *Kooperatibak, berrogeita hamar bazkide baino gehiago dituenean, delituak prebenitzeko eredu bat izan beharko du, eta eredu horren jarraipena egiteko mekanismo bat ezarriko du.*

Bi. *Eredu horren edukia Kontseilu Errektoreak prestatu eta onetsiko du, eta Batzar Orokorrak berretsiko. Honako hauek jasoko ditu: arriskuen mapa; erabakiak hartzeko protokoloa; kudeaketa-eredua; salaketen sistema; zehapen-araubidea; egiaztapen-sistema; Delituen Prebentziorako Eredua aldian behin berrikusi eta eguneratzea.*

Tres. *Delituak prebenitzeko eredu gainbegiratzeko, jarduteko eta betetzeko, ekimen- eta kontrol-ahalmen autonomoak dituen Kooperatibako organo bati agindu behar zaio, edo legez pertsona juridikoaren barne-kontrolen eraginkortasuna gainbegiratzeko eginkizuna duen organo bati. Kooperatibak 250 bazkide baino gehiago ez dituen bitartean, zeregin hori Kontseilu Errektoreari esleitu behar zaio, eta kopuru hori gainditzen duenean, nahitaez, indarrean dagoen organo penal bat izendatu behar da eginkizun horiek bere gain hartzeko.*

3. KOOPERATIBA INDARKERIA SEXISTARIK GABEKO EREMUA IZAN DADIN BEHAR DIREN BITARTEKOAK

Bat. Kooperatibak lan-eremu libreak izango ditu, indarkeriarik gabeak, emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipioak errespetatuko dituztenak.

Bi. Kooperatibak sexu-jazarpenagatiko eta sexuagatiko protokoloa izango du. Bertan, sexu-jazarpenari eta sexuagatiko jazarpenari buruz aurkezten diren erreklamazio eta salaketak ebazteko jarduketak jasoko dira, eta behar bezalako bermeekin aplikatuko da.

Tres. Kooperatibak beharrezko prestakuntza eta informazioa eskainiko die bere bazkide eta besteren konturako langile guztiei, aipatutako eskubideak erabat errespetatuta jarduteko beharraz jabetu daitezten. Kooperatibako gainerako bazkide-motei ere eskainiko zaie.